

GUaixe.eus



Ander Claver
Goikoetxearen
irlen liburua



Sakanerria >> 8

San Sebastian festak atzo hasi eta igandera arte ospatuko dira Lakuntzan. Olaztiarrek ermita inguruan ospatuko dute gaur



Festak >> 15



Sakanako pilota txapelketako finalak

Bihar Lakuntzan eta Arbizon jokatuko dira

>>> 11



Guardetxe berrituaren 2008ko zirriborrea. ARTXIBOA

21 enpresen sorreran lagundu zuen 2016an Cedernak >>> 5

Aralar mendiaren titulartasun osoa eta guardetxe berria eskatu ditu Aralarko Elkarteak >>> 3

Ziordiko araztegia aurten egingen du Nilsak >>> 5

Guaixe.eus web orriak %61 bisita gehiago izan zituen 2016an >>> 9

Trafikoarendako puntu beltza Dorraoko herri sarreran >>> 6

Enneco
harizaren memoria

Mendeetan isilarazitako gure herriaren memoria berreskuratu eta eraiki dezagun.

Egin zaitez Enneco lagun → www.enneco.org

Enneco MECNA proiektua da, beraz egindako aportazioen %80a itzuliko zaizu errenta aitortuenean. Zatoz auzolanera eta izan zaitez Sakanarako bereizgarri izango den proiektu berritzaile honen parte.

Ekainetik aurrera atea zabalduko ditugu.

Sakanaoptika
optikak, kontaktak eta laguntza teknika

Travesia Intxostia 10 · 31800 Altsasu
T.: 948 563 124 · www.optikasakana.com

2x1

Betaurrekoak progresiboak eta egokitakoak barne

kontutatu promozioan dauden modeloak

Uztailak 31ra arteko eskaintza Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Tell./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Nora
ZORIONAK txikitxo!
Iritsi da bizkotxo gaineko hiru kandelatxoie putz egiteko eguna!
Muxu potoloa familiaren partez.



Pedro Miguel Kintana
ZORIONAK aittuna familia guztiaren partetik, 90 urte sasoiatsu hauetaz disfrutatut!!!



Naiatxo
ZORIONAK! Ondo pasa igandean! Etxeko en partez eta Lezeako sorgin akelarrearen partez ere!!!

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideak:

3,50€

Lakuntza

Errefuxiatuendako materiala bilduko dute Lakuntzan

Neguari aurre egiteko arropa eta bestelakoak jasoko dituzte Greziara bideratzeko, ilbeltzaren 23tik 27ra, apaizaren etxean

Lakuntzar batzuk Grezian dauden errefuxiatu guneetan lan egin duen pertsona batekin harremanetan jarri dira. Pertsona horrek gaur egun bertako kanpamenduetan duten behar larrien berri eman die, eta, muturreko egoera horri nola-baiteko erantzuna eman nahian, Lakuntzan material bilketa egitea erabaki du talde honek.

Ilbeltzak

20-26

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Bilto-tek. Ilbeltzaren 20an, ostiralean, 23:00etan Lakuntzako Biltokian.

Antzerkia

Misterios del Quijote. Ilbeltzaren 21ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **El Brujo.**

Solo Fabiolo. Ilbeltzaren 21ean, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Rafael Maza.**

Futbolariak eta printzesak.

Ilbeltzaren 22an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Bakarrizketa

Bola Mugimendua. Ilbeltzaren 20an, ostiralean, 18:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Larrazpi gazte elkarte.**

Proiektzioak

Euskal proiektzioa. Ilbeltzaren 20an, ostiralean, 20:00etatik 22:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Zinema

Más alla de las montañas. Ilbeltzaren 20an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 22an, domekan, 20:00etan

Altsasuko Iortia kultur gunean.

La comuna. Ilbeltzaren 20an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 22an 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Axel, heroi txikia. Ilbeltzaren 22an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

El faro de las orcas. Ilbeltzaren 26an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Bizikleta irteerak

Murieta-Lasia sakana (45 km). Ilbeltzaren 22an, domekan, 7:45ean Altsasuko Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldearen bajeartik.



Erakusketak

Egunerokoaz. Ilbeltzaren 30era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Mertxe Sueskun.**

Hitzaldiak

Nafarroako Lan Autonomoaren Plana, 2017-2020 aurkezpena. Ilbeltzaren 20an, ostiralean, 11:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Nafarroako Enplegu Zerbitzua.**

Gazteak kalean, polizia muntaiarik ez. Ilbeltzaren 20an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Tolosako 5 gazteren kasuaz.



Hizketaldiak

Euskal Herriko geologiaren historia. Ilbeltzaren 23an, astelehenean,

19:30ean Irañetako Txapel Azpi elkartean. **Astelehen Zoriontsuak.**

Tailerrak

Larru lanketa. Ilbeltzaren 21ean, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Galdeketa egiteko sinadura bilketa. Ilbeltzaren 21ean, larunbatean, 12:30etik 14:00etara eta 19:30etik 21:00etara Lakuntzako Plazan. **Gure Esku Dago.**

Elkartasun eguna. Ilbeltzaren 21ean, larunbatean, 13:00etatik aurrera Altsasun. **Altsasuko gastronomía elkarteak.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 20an, ostiralean, 20:00etan Arbuzuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da. Ilbeltzaren 22an, igandea, 12:30ean Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 22an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.



NEGUARI AURRE EGITEKO BEHAR DIRENAK

Greziako errefuxiatu kanpamenduetan aurtengo negu gogorari aurre egiteko premiazkoak direnak eta Lakuntzan bilduko direnak: neguko arropa, toallak, lo egiteko zakuak, barruko arropak, legginsak edo mallak, txandalak, galtzetinak, zapatak...

NON ETA NOIZ

Greziako errefuxiatu kanpamenduetara bideratzeko arropa bilketa Lakuntzako apaizaren etxean egingo da, astelehenean aurrera, ilbeltzaren 23an, 24an, 25ean, 26an eta 27an, astelehenean ostiralera bitartean, goizeko 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Lakuntzarrei ekimenean parte hartzeko deia egin diete.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenean ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Igandean, zuzenean
Osasuna - Sevilla
11:45ean

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Jone Aretarekin ikastolen Kabi eta Txaigorri proiektuez.
- Asteburuko agenda, San Saastinak eta asteko errepaso.

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

>>

Sakana LH, "Bikaintasun Zentroa"

Nafarroako Gobernuaren izendapena jaso du Altsasun dagoen Sakana Lanbide Heziketa Zentroak

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilari nagusiak, Jose Luis Mendozak, Hezkuntzako zuzendari nagusi Roberto Perez Elorza alboan zuela, kalitatearen kudeaketa-sistemak ezarri dituzten 21 ikastetxe publikoren lana saritu zuen Abenduaren 19an. Hiru kalitate aitortza mota banatu zituzten eta horien artean da Bikaintasun zentroarena, 16 ikastetxek jaso zutena. Horien artean dago Altsasun kokatua dagoen Sakana Lanbide Heziketa zentroa.



EKINTZAILEEN ESPERIEN-TZIAK

Azaroan Cederna Garalurrek Ekin-tzailtza esperientziak lehen per-sonan izeneko tailerra eskaini zuen Sakana LH Institutuan. 14 ikasle hartu zuten parte tailerlean. Red Navarra Emprene ezagutzeaz aparte, Cederna-Garalurrek ekintzaile-ei ematen dien laguntza eta zerbitzuen berri izan zuten. Horretaz aparte, Altsasuko bi ekintzailek euren ibilbide eta esperientzien berri eman zieten. Esaterako, Ramón Corosok berak sortutako Dobleclick enpre-saz hitz egin zuen. Informatikako tresnen, tableten eta mugikor gailuen konponketa eta aholkularitza zerbitzua da berea, etxex-etxe lan egiten duena. Iñaki Mujikak, bere aldetik, M86 motor tailerra zabaldu du. Enpresa sortzea nola buru-ratu zitzaizen, egin beharreko tra-miteak, izandako laguntza eta hemendik aurrera dituzten erro-ka eta helburuen berri aritu ziren. +www.guaixe.eus

SAKANA

Aralar mendiaren titulartasun osoa beretako eskatu du Aralarko Elkar-teak



Lakuntzako alkatea, Patxi Xabier Razkin, Nafarroako Parlamentuko agerraldian.

Elkarteko 19 herriek antzinatek mendiko ondasun guztiak aprobetxatzen dituzte, baina ondasunen gozamenen eskubideen kontura izandako epaitegietako tirabirak ekiditeko, elkarteak mendiaren titularrak izatea eskatu du, Bardearen modura

Nafarroako erregeek emandako "pribilegioetan, epaietan eta hitzarmenetan" oinarritutako eskubideak dira Aralarko Elkar-teak Aralar mendian dituenak. Egurra, larreak, ehiza edo turis-mo erabilerak eta aprobetxamen-

duak arautuak ditu. Aralarko Elkar-tearen xedea da Aralar men-diko ondasun komunak zaintzea eta kudeatzea da, beti ere, ordenan-tza eta araudi propioei jarraituz (aurreneko ordenantza 1770-06-27koa da, azkena 2012-0514koa). Ondasun horiek elkarteak osatzen duen 19 herrietako biztanleek aprobetxatu ditzakete bakarrik.

Espainiak Aralarren jabetza-ren titulartasuna Nafarroako Gobernuari 1987an eman zion.

Baina Aralar Elkar-teak bere esku-bideak ditu mendian. Elkar-teak beste administrazioen eskubide urraketak epaitegietan defendatu behar izan ditu Erdi Arotik 2002ra arte. Baita lortu ere. Horregatik, elkar-tekoek mendiaren titularta-sun osoa bere esku uztea proposatu du: "hori litzateke modurik one-na Aralar mendiko gozamenare-kin lotutako edozein eragozpen eta auzi ekiditeko". Bardeako Komu-nitatearen titulartasun osoaren adibidea jarri du ere.

Nafarroako Parlamentuaren Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Batzordean egin zuten eskaera elkar-teko pre-sidente Patxi Xabier Razkin Sagas-tibeltzak eta idazkari Migel Estan-ga Oterminek. Gobernu babesten duten lau indarrek gonbidatuta eman zituzten azalpenak. Razkinek azaldu digunez, ondorengo "balorazio positiboa da. Gobernu babesten duten indarrek ongi hartu dute eskaera eta gainontzekoek azter-tu beharra dagoela esan eta txos-tenak eskatu dituzte". Razkinek azaldu duenez, titulartasun osoa-rena legegintzaldi honetan itxi nahiko lukete.

Guardetxe berria

Guardetxea zena 1901ean eraiki zuten. 1998ko lastailaren 30ean Aralarko Elkar-teak eraikina erabileran anitzetarako berritzea erabaki zuen, egitekoa zen mendiko planaren barruan sartuko zena. Hurrengo 10 urteetan Nafarroako Gobernuarekin egindako bile-retan Guardetxearen gaia mahai gainean egon zen. Gerora, bisitariak hartzeko gune eta beste funtzio batzuetarako eraikin gisa erabiltzea erabaki zuen elkar-teak, 2008ko apirilaren 18an. Ordurako Guardetxea osatzen zuten bost eraikinak nahikoa hondatuak zeuden. Hala ere,

mendiko bisitari guztiendako eta Aralar mendiko langile guztiendako erreferentzia puntua zen. Horregatik, babes zentro moduan birmoldatzea onartu zuten, zeuden eraikinak aprobetxatzea proposatu. Honakoak litzuzke Guardetxe berriak: ostatua, eraikina-ren kargu daudenendako etxebizitza, heziketa gelak (naturaren interpretaziorako bereziki), bilera eta lan aretoak (ikastarotarako), erakusketa gela, tokiko produktu en salmentarako gunea eta Aralarko Elkar-tearen eta Nafarroako Gobernuaren zaintza bule-goak. Proiektua egin zuten ere. Nafarroako Gobernuak 2009ko apirilaren eraikinak bota zituen.

Aralarko 213 zuhaitzen egurra-ren kontura eraikin berria jaso-ko zuela hitz eman zuen. Ez zen halakorik izan. Baina Guardetxe berriaren eskaerak gobernuaren mahai gainean segitzen du, "zeinak, besteak beste, ibarren turis-mo-garapenaren alternatiba erre-al bat artikulatuko lukeen". Foru-zaingoaren kalkuluen arabera urtero 100.000 bat bisitari iza-ten ditu Aralarrek, "baina turis-moak herriei ez die onurarik ekar-tzen". Razkinek turismo kudea-keta jasangarriaren aldeko apustua egin zuen. Eta Guardetxe berria funtsezko gune dina-mizatzailea litzatekeela gainera-tu zuen.

19 herriek osatutako elkarteak

Araitz aldeko: Arribe, Atallu, Azkarate, Betelu, Errazkin, Gaintza, Intza eta Uztegi. Eta Sakana-ko: Hiriberri, Ihabar, Irañeta, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Unanu, Dorrao, Lizarraga, Lizarraga-bengoa eta Etxarri Aranatz. Elkar-tearen presidentea Lakuntzako alkatea da beti eta, egoitza, Lakuntzako udaletxea. Elkar-teak San Juan egunaren aurre-ko asteburuan ospatzen zuen bere eguna, Albiko zelai ondoan, Kapatar iturri ondoan.

Liburua

Aralar mendiko dokumentu eta ordenantzen liburua. Izenburu hori du Aralarko Elkar-teak udazkenean argitaratutako liburua. 4.000 ale inguru argitaratu dira eta elkar-teko herri guztietako biztanleen artean banatu da, dohainik. Etxarri Aranatz nahi duenak udaletxetik pasa behar du, baina gainontzeko herri guztietan etxex-etxe banatu dute. Liburuan Aralar herrien kokapena, historia-eskubideei buruzko, Kontserbazio Bereziko Eremua-ren legea, ganaduzaleekin egindako hitzarmena eta mendienera bilera arautzen duten hainbat ordenantza daude jasota (orokorra, ohiturazko onurak, txabolen kontzesioak, pistetan ibiltzeko araudia eta auzolana). Horrekin batera, Francisco Sanchez Anso lizentziatuak elkar-teko agiri guztiak jasoz 1869an Tuteran argitaratutako Aralarko Elkar-tearen liburuaren erreproduktzioa jasotzen da. Liburu haren kopia bat Jose Mari Satrustegiren artxibotan zegoen gordea. Hura digitalizatu eta liburuan jaso da, baita haren euskarazko bertsioa ere.

Datuak

21.957 km² Aralar mendiak
10,35 km² larreak

Album ilustratu bat sortzeko HELDUENDAKO lantegia

*Otsailak 11 (larunbata)

*10:30-13:30

*Arbizuko liburutegia

Izen-ematea Arbizuko liburutegian otsailaren 3ra arte
(948 017 777- liburutegia@arbizu.eus)

Emailak: Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso

Antolatzailea: Laguntzailea:

Mank
s a k a n a





Marian Mendiola Barandalla

astekoa

Bizi-klidetza

Gure bailarako naturaz gozatzeko, mendiezedota basoez gaindermioak ditugu, herritik aparte dauden laboreetarako lur eremuak. Gure partzelarietan egiten ari diren berrikuntzekin (sasi-tegiak garbituz eta portalangak zabalduz) herrien arteko loturak galarazten zituzten korapiloak askatu eta mugikortasun-sarea zabaltzen ari dira. Ingurumena errespetatzen duten garraio-bideak sustatzea da bide-berri

horien asmoa.

Hirietan bide-gorriak eta oinezkoen alderdiak dauden moduan, gurean Sakanako ibilbide ziklablea eraikitzen ari da. Eskualdeko herriak batuko dituen sarea osatzeko pauso garrantzitsua eta beharrezkoa izango da, oinez zein bizikletaz ibiltzeko aukera zabaltzen duelako. Gainera, egokitzen horien guztien helburua mugaz gaindiko egitasmo zabalagoekin bide-gurutzatzea da,

Ederbidea-Circuldouce-Done Jakue Bidea.

Eta errealitate hori lurrera jaitzita, xenda horietan ibil gaitzekin "fauna" irudikatzerakoan autobideen sarbideetan ikusten ditudan seinaleak datozkit burura. Susmoa dut debeku seinale horietan galarazita dauden landa-garraiobide guztiekin egingo dugula topo. Traktoreak, gurdia, ganadua, oinezkoak, bizikletak edo pirriskak duten edozein

gailu, den-denok lohiez, ur-zirkinez, orbelez eta ongarriz zipriztinduak.

Landatarfauna horianitza da eta, batzuetan, konplexua. Hainbat errealitate eta interes batzen dira bidean, eta haien artean oreka bat bilatu beharra izaten da. Behar hori bereziki nabaria izaten da mugikortasunaren arloan, hor bateratu eta uztartu behar baitira nekazal-abeltzainen lana eta jolasean, denbora-pasan, korri-

kan, bizikletan edota paseoan dabilzanen behar eta nahiak. Denak zilegiak eta zein baino zein errespetagarriagoak baitira.

Oreka konplexu hori lortzeko giltza, nire uste apalean, bizikidetza da. Landa eremuak dituen mugikortasun moduetako bakoitzaren berezitasuna aintzat hartzean eta horiek guztiak elkarrekin izatea ahalbidetzen duten arauak errespetatzean oinarritutako bizikidetza.

barrutik kanpora

Errefuxiatuekin lanean jarraitzea, ezinbestekoa

Lehenik eta behin, AHNA Elkar-teak Mikel Zuloaga eta Bego Uharterekiko elkartasuna adierazi nahi du. Haiek bezala, lanean jarraitzea ezinbestekoa ikusten dugunez, hurrengo proiektu haiek ditugu helburu. Nahiz eta Calaiseko kanpalekua desa-

gertarazi, haren inguruan kanpaleku txikiak sortzen ari dira, errefuxiatuen asmoak Ingalaterrara pasatzea izaten jarraitzen baitu. Egoera are zailagoa da aurtengo neguaren gogortasuna kontutan izanda.

Testuinguru honetan AHNA

elkar-teak Iruñeko biltegian neguko baldintzei aurre egiteko proposa den arropa jasoa dauka eta hurrengo egunotan Calaisera bidaliko du. Era berean, Melillara materiala bidaliko dugu, Guruguru mendian behar-turik dagoen jendetza dagoela-

ko. Eta, azkenik, Greziara bidaiatzeko asmoa daukagu, gure laguntza eskaintzeko eta materiala bidali ahal izateko bideak aztertzeko.

Zehazki, ilbeltzaren 25ean, asteazkenean, Calaisera materiala bidaltzeko kamioia kargatuko

dugu, Care4Calais biltegirako 1.000 kaxa bidaltzeko. Biltegi hori hornitzeko beste aldi batzutan ere lan egin dugu. Besterik gabe, errefuxiatuen alde lanean jarraitzea ezinbestekoa dela berresten dugu.

AHNA elkar-tea

hara zer dien

“Encartados”: kartekin estimulazio kognitiboa lantzeko gida

“Encartados” aurkeztera gatoz, dementsia edo kalte kognitiboa duten pertsonen egokitutako karta-joko gida bat, bereziki, familiar-teko eta zaintzaileei zuzendurikoa. Javier Sanchezek (Navarriomed-eko Neuroepigenetika Ikerketa Taldeko kidea) eta Laura Morenok (Josefina Arregui Klinikako neuropsikologoa) sortua.

Adituek, tratamenduaren parte bezala, estimulazio kognitiboa lantzea gomendatzen dute. Gaur egun ez dago dementsiak sendatzen dituen tratamendu-

rik. Helburua gaixotasun hauen berezko garapena moteltzea eta bizi kalitatea hobetzea da.

Estimulazio kognitiboa lantzeko era asko dago, pertsona bakoitzari eta bere inguruneari egokitzeko da gakoa. Gida hau proposamen bat da, zeinetan aisiari lotuta dagoen eguneroko tresna bat aukeratu den: kartak.

Hainbat joko motek osatzen dute gida: betiko zenbait joko tradizionalak, beste joko klasiko batzuen bertsio erraztuek eta, zailtasun maila anitzak iza-

nik, gaitasun kognitibo jakinak lantzeko espresuki sortutako jokoak.

Azpimarratzekoa da jokoaren bitartez betetzen diren beste funtsezko helburu batzuk direla, batetik, pertsona hauek bere zaintzaile eta ingurukoekin duten harremana hobetzen saiatzea eta, bestetik, denboramodu emankorrean pasatzea. Honek haien ongizatea hobetuko du. Oinarritzakoa da kalte kognitiboa duten pertsonak eta bere zaintzaile edo gertukoek estimulazio jarduerak

egiten gustura egotea.

www.encartados.com web orrian gida debalde eskuratu daiteke PDF formatuan. Inprimatuta eta koadernatuta ere eros daiteke kostu prezioan (8,5€, egileek ez dute irabazirik lortzen) Iruñeako Ulzama dandan (Iturrama kalea, 9). Horretaz gain, web orrian joko batzuen bideo erakusleak eta balorazio inkesta bat jarri dira. Jolas dezagun!

Josefina Arregui Klinikak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik

EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira.

Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira.

Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko.

Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko:
Foru plaza, 23, 1 Altsasu;
gutunak@guaixe.eus edo
948 564 275 telefonoa.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ZUZENTZAILA: Maria Luisa Zelaia
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoe Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

 **Nafarroako Gobernua**
Gobierno de Navarra

SAKANA

Autonomoaren planaren aurkezpena

Gaur, 11:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Cederna-Garalurrekin batera, Nafarroako Lan Autonomoaren Plana, 2017-2020ren aurkezpena prestatu dute gaurko. 57 neurri biltzen ditu planak, langile autonomoaren lan baldintzak hobetu, lan autonomia sustatu eta egonkortzeko izan daitezkeen. Gaurko aurkezpena, besteak beste honakoak aztertuko dira: krisiaren eragina, administrazioendako dituzten eskaerak, beharrak eta gabeziak, autonomoen elkartek nola eragin dezaketen, plana nola aberastu daitekeen eta beste hainbat gai landuko dira aurkezpenaren akaberako solasaldian.

Ziordia

Araztegia, aurten

Ziordiko ur beltzen araztegia egiteko ondasunen eta eskubideen premiazko okupazioa onartu du Nafarroako Gobernuak. Hilaren 13an egindako bileran onartu zuen. Gaur egun Ziordiko ur beltzak Mirari ale ondandagoen hobi septikoan biltzen dira. Herritik gertu, usainak sortzen dira eta batzuetan ur beltzak ibaian bukatzen dute. Gainera, aldiaren behin, Nilsak hobi septikoagarbitzeko kamioia bidaltzen du.



Horrekin guztiarekin bukatuko du araztegi berriak. Nilsa enpresa publikoak eraikiko du, 738.619 euroko (BEZ kanpo) aurrekontuarekin. Txeria bidean, Olatzagutiarako bidean, Ziorditik 520 bat metrora egingen da. Herri lurretan eraikiko da eta hobi septikotik hara hodia luzatuko du. Araztegiak, urak garbitu ondoren, ibaian bukatuko dute. Olatzagutia eta Ziordia artean zerbitzu errepide bat egiteko dago, A-1 autobia egin zenean ez zena egin. Hodi horren trazatua bide horrenarekin bateragarria izanen da.

Altsasu

Eraso matxisten salaketa

Aski da. Eraso matxista gehiagorik ez lelopean Altsasuko mugimendu feministak deituta, 30 bat pertsona kontzentratu ziren herenegun, tartean udal ordezkariak. Udaletxe parean ordu laurdeneko kontzentrazio isilarekin bi sexu eraso salatu zituzten: bate-tik, Burlatako Blanca Marquesen hilketa eta, bestetik, Sara Majarenas euskal presoaren alabaren hilketa saiakera.

Akaberan mugimendu feministako kideek adierazi zuten, "beste behin hemen egon behar dugu, pasatzea nahi ez dugun baina pasatzen segitzen duenagatik protesta egitera elkartu gara. Hala

eta guztiz ere kontzentrazioetara esperantzarekin etortzen segitu behar dugu: honek guztiak balio duelakoan, pixkanaka-pixkanaka, gero eta jende gehiagok izugarrikeriaren, ekidin behar denaz eta honek gure eguneroko bizitzan suposatzen duenaren kontzientzia hartzeko". Altsasuko mugimendu feministako kideek "gure jokabideak bideratzeko" deia egin zuten: "ditugun jokabideak aztertu eta behatu behar ditugu, hala koetara ez iristeko eta saihesteko. Oso garrantzitsua da halakoak arraroagoak izan eta hain sarri izan ez daitezkeen. Honekin guztiarekin bukatu beharra dago".



Bi sexu eraso salatu zituzten herenegungo kontzentrazioan.

SAKANA

Cedernak 2016an 21 enpresen sorreran laguntza eman zuen



adssadas.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera finantzatzeko Ekintzaileentzako Sustatzeko Zerbitzuak Sakanako 41 ekintzaileeri eman zion laguntza eta aholkularitza 2016an

Cederna-Garalur Elkartek Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera finantzatzeko Ekin-

tzaitza Sustatzeko Zerbitzuak 2016ko datuen berri eman du. Datuok diotenez, joan den urtean Sakanan 41 ekintzaileeri laguntza eman zieten, 20 emakumezko eta 21 gizonezko. Bestalde, 2016an 21 enpresa sortu ziren,

28 langile autonomoren alta ekarri zutenak (16 emakumezko eta 12 gizonezko). Datuek gainera zuten dutenez, aurretik sortuta zeuden 14 enpresei ere laguntza eman zitzaion.

Cederna-Garalurrek ere gogora ekarri nahi izan du Sakanan joan den urtean hainbat ekintza antolatu zituztela: bi ekintzaile-tza mahai, bi tutorial (Ogasunarekin bete ahal izateko zure papearak antolatu eta Ogasuna online zerbitzuarekin tramiteak nola egin) eta Altsasuko Sakana LH institutuan bi taller (The Case eta Ekintzaileentzako esperientzien lekukotza zuzena).

Nafarroako datuak aintzat hartuta, Cederna-Garalur Elkartek adierazi du Nafarroako Mendialdean, 2016an, 75 enpresen sorreran laguntza eman zutela, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntzarekin finantzatzeko Ekintzaileentzako Sustatzeko Zerbitzuaren bidez. Halaber, guztira 174 ekintzaile lagundu zituztela gaineratu du, 94 emakume eta 80 gizon. 75 enpresa berri horiek ekarri dute 88 autonomok alta eman zutela Gizarte Segurantzian. Horretaz gain, aurretik sortuta zeuden 50 enpresei ere laguntza eman zieten aipatu du.

Ekintzaileentzako zerbitzua Sakanan

Cederna-Garalur Elkartetik azpimarratu nahi dute ekintzaileei laguntza emateko zerbitzuak martxan jarraitzen duela Sakanan, Arbizuko Utzaganen garapen zen-

troan, 8:00etatik 15:00etara (948 567 010 telefonoa). Altsasuko Gure Etxe eraikineko lehen solairuko 1 gelan, astelehenero, 9:00etatik 15:00etara.

Urdiain / Altsasu

Gaur 1.300 urte Nafarroako lehen erregearen koroatu zuten

San Pedro ermitako ateburuan hala dago idatzia

Urdiain eta Altsasuko San Pedro ermitako ateburuan idatzita dagoen testuak dioenez, gaur, ilbeltzaren 20an, 1.300 urte beteko dira Nafarroako lehen erregea, Gartzia Ximenez, San Pedron koroatu zutela. Efemeride hori aintzat hartuta, bizilagun talde batek omenaldi txikia antolatu du gaurko, 17:00etan, eta herritar guztiak San Pedrozelaira gonbidatu dituzte.

San Pedro baselizako ateburuko testua

«Año de setecientos y diezisiete, a veinte de henero en esta iglle de San Pedro, dela Valle de Burunda fue electo y ungidopor primer rei de Navarra, Garcia Ximenez. Y esta elecion cofirm. el mesmo año el papa, Gregorio segundo como parece por su Bula que la tiene, la dicha. Valle-ENSV archivo fue reedificada esta yglesia el año 1647.»



Urdiaingo eta Altsasuko San Pedro ermita.

>> Dorrao

Herri sarreran trafikoarendako puntu beltza

Herrirako bidean dagoen zubiaren parean bi auto bidetik aterara bi astetan. Izotzaren kontra gatzatzea eta bihurtze arriskutsuaren seinalea jartzea eskatu dute.

NA-7101 errepidetik aterara eta Dorraora joateko bideak behara eta gora egiten du. Bidearen beheko partean Leziza erreka gaineko zubia dago. Zubia zeharkatzeko errepideak 90 graduko kurba egiten du. Neguan zubian eta bihurtzean ez du eguzkirik jotzen, itzalean dago eta, horregatik, izotzuta egoten da errepidea.

Baldintza horiekin topo egin zuen Cadizko familia batek larunbatean, 1:00etan. Haien autoak irrist egin eta Leziza errekan bukatu zuen, gurgilak goraka zituela. Ezbeharraren ondorioz, gurasoak eta 8 hilabeteko umea arin zauritu ziren; 8 urteko neskatua, berriz,

onik aterara zen. Antza, aurretik autoa ezpondan sartu zen, horrek buelta emanarazi omen zion eta ererikoaren indarra txikitu zuen. Etxarri Aranazko osasun etxeko profesionalak aparte, suhiltzaileak eta Foruzainak gerturatu ziren istripuaren tokira.

Urteko aurreneko egunean izan zen bestea. Emakume dorrobar batek gidatzen zuen autoa izotzarekin irrist egin eta bidetik aterara zen. Orduko hartan soroan bukatu zuen autoak. Gidariak esku-muturrean zauri arina izan zuen. Dorrobarrak esan digunez, "oso toki tranposoa da. Txapa kolpe ugari egon dira". Dorrobarrak herri sarreran dagoen puntu beltz horretan errepide mantenukoek neguan gatzik ez dutela botatzen salatu du. "Abandonatuta gaude". Horrekin batera, "kurba arriskutsua dago-



Autoa, gurgilak goraka, Leziza errekan. FORUZAINGOA

ela esaten duen seinale bat jarri behar da, ez dakienak zer heldu den jakiteko". Kontzeju-burua eta

Ergoienako alkatea jakinariaren gainean daude eta Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri dira.

>> Lakuntza

Led bidezko argiteria publikoa

Sarearen %25 aldatu zituen udalak eta urte zahar egunean mustu zituzten

Lakuntzako Udalak argindar faktura murrizteko argiteria publikoa berritzen hasi da. Behin puntu guztiak aldatuta fakturan %85eko murrizpena izatea aurreikusitako udalak. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak azaldu digunez, Leycolan SAL enpresak herriko zeharbidetako (Mikel Arregi eta Uriz kaleak) eta Alde Zaharreko (Larraina, Larrañeta, Abarrategi eta Herriko Plazako kaleak) 100 bat argi-puntutako bonbillak kendu eta

led-engatik aldatu dituzte. Lanak azaro akaberan hasi eta urteko azken astean despeditu zituzten. Enpresak lanengatik 45.000 euro jaso zuen.

Razkinek esan digunez, herri guztiko argiteria publikoa led teknologiarekin jartzeko asmoa dute. Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsio Planeko diru-laguntza deialdira lan horiek aurkezteko asmoa dute. "Gobernuak %60ko diru-laguntza emanen baligu lan guztia kolpean egingen genuke. Bestela, urtero argiteria publikoaren laurdena aldatuko genuke".



Lakuntzako plaza azoka egunean.

>> Etxarri Aranatz

Energia aurrezteko helburu

Etxarri Aranazko Udala kale-argiterian led argiak jartzen hasi da eta, bestalde, energia elektriko hornikuntza kontratu guztiak Goienerrekin kontratatatu ditu. Udalak energi aurrezteko konpromisoa hartu du

Jakina da kale-argiteriaren energia-kontsumoa oso handia dela eta kostu ekonomikoa dela garrantzitsua. Argiteria publikoaren erabilera eraginkorrek eta puntako teknologiaz baliatzeak energia-kontsumoa murrizten eta merkeago egiten lagundu dezakeela jabetuta, 2015ean argiteriaren auditoria energetikoa enkargatu zuen Etxarri Aranazko Udalak. Energia-eraginkortasunean eman beharra agerian gelditu ziren.

Horrela, kale-argiteriako luminariak aldatzen hasi da udala, led argiekin ordezkaturik. Aldatzeko lehentasuna efizientzia gutxien duten argi-puntuak izan behar dira. Oraingoan, Aldapasoro, Santa Kitz eta San Kiriko kaleetako luminariak aldatzen hasi dira, eta aurki Kale

Nagusikoak aldatzen hasiko dira. 30.000 euroko inbertsioa eginda, eta horrek ekarriko du urtean 33.775,8 kWh aurrezteko, hau da, kontsumoaren %5 gutxi gorabehera. Egindako inbertsioa lau-pabost urtean amortizatuko dela gaineratu du udalak, eta zehaztu du urtean 80 argi-puntu aldatuko direla guztira.

Hurrengo urteetan herriko beste kale batzuei ekitea da asmoa. Diru-laguntzarik ezean, poliki-poliki burutuko da programa, urtero kalerekin bati ekin. Diru-laguntzak lortzeko Udala gobernu zentralerako IDEAren laguntzak lortzeko ahaleginetan ari da.

Goienere

2015ean energia kontsumoaren azterketa egin ondoren, Etxarri Aranazko Udalak energia elektriko hornikuntza kontratu guztiak Goienerekin kontratatzea erabaki du. Goienere, energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba da, eta bere



Etxarri Aranazko argiteria publikoak led argiak edukiko ditu aurrerantzean.

helburua herritarrek oinarritzko ondasun horrekiko kontrola berreskuratzea eta horren garrantziaz jabetzea da, energiaren kontsumo arduratsu eta iraunkorra bulkatuz.

Goienerekin bazkide egitearekin, udalak kontsumitu behar duen energia elektriko guztia berriztagarria izango dela ziurtatzen du eta ez da berotegi-efektuko gasik atmosferara isuriko. Gainera, potentzien

kontratazioaren doikuntza eta energia kontratazio indexatua apustua eginez, urtean ia 5.000 euro aurretuko dira.

Bestalde, Goienereko bazkide egitearekin, lanpostuak sortzeko aukera handitzen da Goienere eta Nafarroako barruan. Aurreikusten da heldu den urtean barna Nafarroan beste pertsona bat gehiago kontratatuko dela eta bulego propio bat irekiko dela.

>> Arakil / Irañeta

Astelohen Zoriontsuak hitzordu berria

Astelenean, 19:30ean, Irañetako Txapel Azpi elkartean



Astelenean bestelakoak bihurtu nahi zituzten. Eta, gainera, edozein gairen inguruan euskaraz hitz egiteko helburua zuten. Horrela sortu zen Astelohen Zoriontsuak. Astelohen batean elkartu eta testuak, ikus-entzunezkoak edo intereseko gairen bat abiapuntu hartuta haien gainean euskaraz aritzen dira. Astelohen Zoriontsuak-en aurtengo aurreneko hitzordua Irañetako elkartean jarri dute astelenean. Euskal Herriko geologiaren historia ezagutu nahi duenak hara biltzeko aukera izanen du.

SAKANA

Euriteak errepideetan eragina utzi du



Uholdeen irudi bat Lizarragabengoa

Euriteen eta elurraren urtearen ondorioz Sakanan bost errepide itxi ziren asteburuan eta astelenean. Larraun ibaiak gainezka egin zuelako NA-1300 errepidea Irurtzun eta Latasa artean itxi zen. Bestetik, Irurtzun eta Asterain lotzen dituen NA-7010 errepidean, Errotz pasata ere ibaiak gainezka egin zuen, errepidea moztuz. Errotzik Urritzolara daraman NA-7065 errepidea ere moztu zen, zubian. Beraz, Urritzolara joan edo handik aterara nahi zuenak Etxarrenera daraman dermioko bide asfaltatua erabili behar izan zuen ibaiak gainezka egin zuelako. Uhartea Arakilen Irañetarako eta Aralarko monasteriorako NA-2410 itxi zen, baita Arbizutik Lizarragabengoa ere. Elurragatik Aralarko monasteriorako errepidea moztuta egon zen.

SAKANA

Ikastolak haurren erritmoari jarraiki

Ikastolen Haur Hezkuntzako marko pedagogiko berria oinarrituta, Iñigo Aritza ikastolak Kabi proiektua eta Andra Mari ikastolak Txaiorri proiektua jarri dituzte martxan

Aitzindariak izatea, material didaktiko propioa sortzea eta etengabe proiektu berritzaileak lantzea, horiek dira ikastolen ezaugarrietako batzuk. Bide horretan Sakanako ikastolek beste aurrerapauso bat eman dute eta ikasturte honetan Ikastolen Haur Hezkuntzako Marko Pedagogiko Berriarekin hasi dira lanean. Marko pedagogiko hori egokitzeko Iñigo Aritzan Kabi proiektua gauzatu dute eta Andra Marin Txaiorri proiektua. Iñigo Aritzako Haur Hezkuntzako koordinatzaile Jone Aretak eta Andra Mariko Haur Hezkuntzako zuzendari Teresa Goikoetxeak eta Josune Arrazubiandereñoak eman dizkigute ibilbide berriaren azalpenak.

Konpetentzietan oinarritutako proiektua, haurrak loratzen lagunduko duena

Zer da ikastolen marko pedagogiko berria? Horrela definitzen dute ikastolek: “Ernetzen ari den hazia da haurra. Berez dakar landare bihurtzeko behar duena; lurlean zabaldu eta berez joango litzateke hazten. Baina hazi horri lur egokia, eskatzen duen ura, behar duen eguzkiaren beroa eta argia eta hobeto hazteko ongarria ematen bazaizkio, landare horrek berak dakarren lorea emango du. Hortaz, hazi bakoitzaren beharrei erne egon behar dugu: berak adieraziko digu noiz behar duen ura eta zenbat ur behar duen ez itotzeko, noiz behar duen berotasun handiagoa edo noiz ari den erretzen, noiz dagoen aseta, bapo, gustura”.

Definizio horretatik abiatuta eta Euskal Herriko Ikastolen Marko Pedagogiko Berria kontuan harturik, Haur Hezkuntzan Kabi eta Txaiorri proiektuak jarri dira martxan Sakanan. Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza proiektuak dira, ikastolen euskal curriculum propioan jasota dauden oinarritzko bost konpetentzia orokorrak –norbera izaten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, komunikatzen ikasi, ikasten eta pentsatzen ikasi eta egiten eta ekiten ikasi– kontuan izanda, hauek landu eta garatzeko proiektu pedagogikoak.

“Europatik datorren joera pedagogikoa konpetentzietan oinarritutako programazioa eta ebaluazioa egitearen da. Hala egiten dugu ikastoletan Eki proiektuarekin, Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko 4. mailaraino. Orain Haur Hezkuntzara ekarri dugu (3-6 urte). Ikastoletan hezkuntza proiektua beti zentratu izan da haurraren, baina marko berri honekin Haur Hezkuntzan protagonismo hori gehiago areagotzen da. Haurraren behar, erritmo eta nahien inguruan gauzatzen dugu proiektua. Orain modu askeagoan, autonomoan airtzeko aukera dute haurrek, eta



Iñigo Aritzako ikasleak, arte gunean.



Andra Mari ikastolakoak, ikerkuntza gelan.

beraien interes, erritmo eta beharren arabera ikasten dute” azaldu du Iñigo Aritzako Jone Aretak.

Haurra protagonista: beraien interes, erritmo eta beharren arabera ikasten dute

“Finean filosofia bat da, haurra ikusteko modu ezberdina. Ikastolen hasieratan irakasleok izan behar ginen haurrak esperientziaz eta jakintzez betetzearen ardura genuenak, nolabaiteko protagonistak. Baina daramagun ibilbide luzean jabetu gara haurra dela gaitasunez eta esperientziaz beterik datorrena. Eta orain irakasleak euren bide-lagunak gara; eurek dakartzaten esperientzia horiek elikatzen ditugu. Euren ondoan gaude, baina protagonista haurra da. Haurrak dauka ikasteko gogo, beti dute, eta bizitzeko gogo hori da sustatu behar duguna. Ingurune aberats bat eman behar diegu beraiek bere ibilbidea egiteko. Ibilbide hori egiten den heinean loratu baina haurra” zehaztu du Andra Mariko Josune Arrazubik.

Espazioak bateratu, hormak bota

Horretarako, bi ikastoletoako espazioak berrantolatu dituzte. “Orain arte, haur bakoitzak erreferentziaz-

ko gela zuen; adinaren arabera antolatzen ziren gelak. Gela bakoitzaren barruan txokoak zeuden eta haur bakoitza bere gelan aritzen zen. Orain hormak bota egin ditugu, batez ere gure buruko hormak. Txokoak ikastola guztian barna daude eta ikastolako espazio eta txoko guztietatik modu autonomoan mugitu daitezke haurrak. Berdin du bere adinekoekin egoten badira edo ez. Zirkulazio librean, nahi duten gunean egotea aukeratzen dute” gaineratu du Jone Aretak.

Beti gune bera aukeratu ote zuten kezka omen zuten gurasoek hasieran, baina espazio guztietatik pasatzen direla nabarmendu dute irakasleek, interesaren arabera batzuetan gehiago. “Nabarmeneko da txoko guztietan lantzen direla ikastolen curriculumean jasotako oinarritzko 5 konpetentzia horiek. Oinarri emozionala lortu dugu; beraiek joaten diren tokira doaz interes bat dutelako. Berdin dio natura gunera, arte gunera, motriztatara, imaginariura lasaitzera... Haurrak askoz ere lasaiago daude eta gustuko duten gunean denbora gehiago egoten direnez, egiten dituzten lanak lehen egiten zizuten baino askoz ere garatuagoak dira. Eraikuntza handiagoak eta garatuagoak egiten dituzte eta,

guk orain arte Haur Hezkuntzan proposatu ez genituzkeen konzeptuak lantzen dituzte: kontrapi-sua, oreka, proportzionaltasuna... Konzeptu konplexuak. Eta berdin motriztate gunean edo arte gunean” nabarmendu du Aretak. “Espazio guztietan oinarritzko gaitasun guztiak lantzen dira: arlo kognitiboa, arlo emozionala, arlo motorra, arlo soziala eta autonomia edo identitatea” zehaztu du Arrazubik.

Haur bakoitzaren erritmoan oinarritutako proiektuak dira Kabi eta Txaiorri. “Giro oso lasaia dago. Beraiek ikusten dute gauzak ikastearen beharra. Eta hori oso positiboa da” zehaztu du Arrazubik.

Haurrak konfiantzako eremuan hazi, zoriontsu izateko

Proiektu berri hauekin lan handia egiten ari dira irakasleak, baina oso kontentu daude. “Hau guztia ez da berria. Ibilbide bat egin dugu. Garai haietan txokoen bidez lan egiten hasi ginen, modu aitzindarian, eta gutxinaka eremu askea ezartzen joan gara, txipak aldatu ditugu eta guztia pedagogikoki borobildu dugu. Bidea hau dela jakitun gara. Jakina, honek lan gehiago eskatzen digu. Haurren beharrei eta laguntzaile izan behar dugu. Arlo emozionala asko lantzen da, eta behatu behar duzu haurra nola dagoen, zein premia daukan eta dituen gaitasunak potentziatu. Haurra zoriontsu izan dadin. Izan ere, hori da helburu nagusia. Haurrak ez badu beldurrik, bere buruarekin seguru eta trebe sentitzen bada, bere kabuz ikasten du. Eta hori da gure helburua, haurrak konfiantzako eremu batean haztea, haurra seguru eta trebetasunez beteta dagoela sentitzeko. Konfiantza ematen zaiola sentitu dezan. Horrela izango da zoriontsu” nabarmendu du Arrazubik.

“Lanzama handia izan da. Espazioaren berrantolaketa egin behar izan dugu eta horri arlo teorikoan egin beharreko lana gehitu behar zaio: ebaluazioa nola zehaztu, zer behatu, irakasleen artean koordinazio bilera gehiago egitea, haurra irakasle desberdinekin egoten baita. Hau aberatsa da. Aldatzeko beharra sentitu genuen, irakaskuntza beste modu batez planteatu ahal zela pentsatu genuen, eta horretan gaude. Hasitako bide berriarekin oso pozik gaude eta gurasoak ere bai” gaineratu du Aretak.

Marko berria ikastola guztian ezartzea da asmoa

Egun, Haur Hezkuntzan (3 eta 6 urte), konpetentzietan oinarrituta lan egiten ari dira bi ikastolak. LHko 6. mailatik DBHko 4. mailara bitartean Eki proiektua lantzen dute, konpetentzietan oinarrituta hau ere. Helburua, gutxinaka, LHko tarte hori, 1. mailatik 6. mailara, konpetentzietan oinarritutako izatea da eta horretan daude.

+www.guaixe.eus

Etengabeko formazioa

Proiektuak martxan jartzeko etengabeko formazioa jasodute eta jasotzen jarraituko dute irakasleek.

Andra Mariko Txaiorri proiektua

Andra Marik Etxarri Aranatzan eta Arbizundituen ikastoletan gauzatzen da (3-6 urte). “Haurrak ikastolara sartu eta harrera gela bat dute konfiantzako ingurunean sartzeko. Gurasoekin barruraino sartzendira. Txoko berezibat dago familiako kideak egoteko” azaldu du Josune Arrazubik. “Hasieran, sarrerako erritual bezalako bat egiten dugu, erreferentzia gelan, adinka, eta ondoren bakoitzak bere espazioa aukeratzeko. Ditugun guneak txikien gela, sinbolikoa, sormen tailerra, ikerkuntza gela, eraikuntza gela, liburategia eta psikomotrizitate gela dira. Pisu berean daude eta zabalik” gaineratu du. Haurrek aukeratzeko dute, nabarmen, haiek egiten dutena. “%80 beraien intereskoa da eta %20 irakasleek proposatutakoa. Azken honetan, oinarritzko gaitasunak lantzeko proiektuak –Optimist-, hizkuntza lantzekoak –olerkiak, ipuinak, ingelera...– eta beraien interesetik sortutako proiektuak ere lantzen dira”. Kanpoko eremuan frontoia, belardia, aretoa, trabiesaz osatutako bidea eta beste dago.

Iñigo Aritzako Kabi proiektua

Iñigo Aritzak Altsasun duen Txio-ka ikastetxean gauzatzen da (3-6 urte). Dituzten guneak, ondokoa: arte gunea, naturagunea, eraikuntza gunea, komunikazio eta jolas sinbolikorako gunea, motriztate gunea, imaginariuma (lasaitzeko gela) eta jolas arautuen gunea. Gurasoen txokoa eta barataza ere badaude.

Kanpoko espazioari buelta bat eman behar diotela kontatu digu Jone Aretak. “Orain barataza, frontoi txikia eta aretoa ditugu. Horretaz gain, jolas sinbolikorako elementuak, rokodromo txiki bat, horma musikal bat, enborrekin egindako egitura bat eta beste jarri nahi ditugu, kanpoko espazioa ikasgelen luzapen bat izateko” zehaztu du.

Iñigo Aritzan erreferentzia taldea mantendu dute, adinka. Oinarritzko gaitasunak lantzeko Optimist programa, ipuinak, asanblada, eguneko ekintza zehatza, musika eta beste erreferentzia gelan egiten dituzte. Gainontzean, zirkulazio librean dabilta. “Ingelera saio zuzenak astean bitan erreferentzi taldean egiten dira, baina ingelarako irakasleak zirkulazio librean ordu batzuk ematen dituzte” gaineratu du Aretak.

>> Altsasu

Bi zitazio Madrilen

Hilaren 28rako, bestalde, Soto del Realerako martxa antolatu dute

Ferietako liskarragatik auzipetutako bi adin txikiko altsasuarrak Madrilerajoan beharko dute otsailaren 13an. Adin txikikoen epai-tegiak jarri die hitzordua. Herri-asanbladak antolatuta, aurretik ere altsasuarrak Madrilgo bidea hartuko dute. Hiru herritarrak preso dauden Soto del Real espetxeraino eraman nahi dute elkartasuna, baita hiruen askatasuna aldarrikatu ere. Abenduan Indar Gorrik antolatutako martxak ezin izan zuen gerturatu, Guardia Civilak eragotzi zuelako. Orduan ez bezala, oraingo martxak baimen guztiak ditu. Martxako autobuse-tan izena eman nahi duenak ohiko lekuetan egin dezake.

Bestalde, azaroaren 14 sarekada eta ondorengo espetxeratzek salatzeke egindako protestetan parte-hartzeagatik beste isun bat iritsi da. Dagoeneko 9 dira isunak eta gehiago izan daitezkeelakoan gai hori propio landuko duen talde bat sortu da. Harremanetan jarri nahi duenak isunakaltsasu@gmail.com e-posta du.

Elkarteetatik elkartasuna

Amandrea, Beti Iaten, La Encina, Lagun Onak, Otai, Zubeztia eta Zubi-ondoelkarteak bete-beteta egonen dira bihar bazkalgarai. Altsasuko zazpi gastronomia-elkarteak bat egin eta 687 pertsonari emanen diete bazkaltzen. Toki faltagatik beste 60k aparte bazkaldu eta lagundu egingen dute. Elkar-te bakoitzak bere menua. Baina denak ere helburu berarekin: ferietako liskarrean auzipetutakoak laguntzea. Elkar-teetako kideek dakiten modu horretan sortutako egoerarekin euren "ezinegona eta haserre" erakutsi nahi dute, baita sufritzen ari diren 11 familiei "elkartasun osoa" adierazi ere. Bazkariak aparte, iluntzera arteko egitaraua prestatu dute.

Egitaraua

13:00etan Elkar-te guztien agerpena Foru plazan, Gure Etxea eraikinean edatekoak eta pintxoak zerbitzatuko dira. Ondoren herrian barna kalejira.
15:00etan Elkar-teetan bazkaria.
19:00etan Foru plazan elkartu, poteoa eta musika.
 Gauean Gure Etxea eraikineko behesolairuan barrazabalik eta disko-jartzaile arriko da.

Altsasu: Gurpil gaineko salaketa



11 auzipetuen egoeragorazarazteko eta 3 presoen askatasuna aldarrikatzeko auto-karabana batek Sakanan zeharkatu zuen larunbatean. Egun horretan bi hilabete bete ziren Guardia Civilak Altsasun sarekada egin zuela. Herri-asanbladaren deialdiari

erantzunez, 30 bat ibilgailuk osatutako karabana herriz herri "polizia-muntaia" salatu zuen. Bestalde, herri-asanbladak antolatuta, domekan Burunda frontoiko beheko harmaila guztia bete zuen jendeak, Porrotx pailazoaren ikuskizunarekin gozatzeko.

SAKANA

Hatz erakusle salatzaileak

Presoen giza eskubideen urraketak salatzeke, makina bat sakandar eta udal guztietako ordezkariak izan ziren Bilbon, Ergoienakoak barne

Giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde, Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskaera bere egin zuten makina bat pertsonak Bilbon larunbatean. Sare herritarrak antolatutako manifestaziora 10 autobus joan ziren Sakanatik. Ibarreko beste asko euren autoetan edo garraio publikoan joan ziren. Sakanako 15 udalako ordezkariak izan ziren manifestazioan. Sarek 14etan aurkeztu zuen mozioa eta onartu egin zuten. Ergoienan, antza, ez zuen moziorik aurkeztu. Baina Ergoienako Udalak eskaerarekin bat egin zuen eta bere ordezkariak larunbatean Bilbon izan zen.

+www.guaixe.eus

Altsasuar bat Sorturen nazio-kontseilurako hautagai

Sortu alderdiak bere "birfundaziorako" prozesua bihar despedituko du, Bilboko Euskalduna jauregian. Zohardia txostena eta nazio-kontseiluak osatuko dituzte. Azken hori alderdiaren zuzendaritza nagusia da eta 29 kidez osatuta izanen da. Haietako 14 aukeratuak dituzte eta gainontzeko 15ak bozketatik hautatzen ari dira. Horiek betetzeko 38 hautagai daude eta haietako bat da Joseba Garmendia altsasuarra.

>> Altsasu

Ariketa militarrek

Hainbat altsasuarrak militar taldea ikusi zuten astearte goizean. Goraino kargatutako 15-20ko talde bat Sakanako Autobia (A-10) zubia pasatu eta bargarantz jo du. Espainiako Gobernuaren Nafarroako ordezkariak baieztatu zигun "eskualdean ariketa militarrek egiten ari direla".




Gaineratu zuten, ariketa horiek "dagokion unitatearen instrukzio programaren barruan daude". Militarrek Sakanan ariketak egin zituzten azken aldian 2015eko irailaren 15ean izan zen. Orduan Lakuntzara autobusez iritsi eta handik Aralar aldera jo zuten.

Claver, irla berezietan gidari

Ander Claver Goikoetxea altsasuarrak eta Janire Nogales Prieto gernikarrak *Atlas de las islas sin coche: Primera parte (2016, Saure)* liburua argitaratu du, argitaletxearen Atlas sensible bildumaren barruan

Claver Euskal Herriko Unibertsitatean ingeles ikasketen graduko 3. mailan ikasten zegoela, praktika sorta bat eskaini zizkieten. Ikastetxe batean eta Sauré argitaletxean praktikak egitea aukeratu zuen altsasuarrak. "Nigandik sortutako zerbait idaztea aspaldiko interesa zen. Hainbat testu idatzi beharra nuen, aldi berean atseginak, informatiboak eta literarioak zirenak". Argitaletxeko praktiketan Janire Nogales Prietogernikarrarekin aritu zen. Jean François Sauré editorea haiekin harremanetan jarri zen esanez, 46 irlez aritzea nahi zituela. "Irla guztiek berezitasun bera dute: ez dago motordun ibilgailurik. Bakarren batean anbulantzia eta haloak daude soilik. Haietako askotan ez dago errepiderik. Lurralde nahiko basatiak dira. Bisitariak oinez, bizikletan edo gurdian mugitu daitezke".

Azaldu digunez, bere egitekoa informazioa bilatzea izan zen. "Venecia irla ezagunena da, baina gainontzekoen informazioa opatzea nahiko zaila izan zen". Informazioa ingelesez zegoen eta ikasketan primeran baliatu zituen. Irla bakoitzaren historia, bitxikeria, zerbitzuak datuak jaso zituen, guztiak uhartea eta aisialdia goza-



Ander liburua eskutan duela. Venezia, Txinako, Tanzaniako, edo Indonesiako irlak bisitatuko lituzkeela esan digu.

tzeko. "Bidaia-gida moduko bat da". Irla bakoitzari orri bat eskaini diote, "nahiz eta niri batzuetan gehiago kontatzea gustatuko litzaidakeen". Testu orri ilustrazio batek laguntzen dio. Informazio bilaketa prozesuan opatutako mapekin sortu ditu Laura De la Cruzek. Haren lana goraiatu du Claverrek.

Bi hilabete osorik eman zituzten lanean, "gelditu gabe". Liburua lau eskutara idaztearekin "kezka" zuen altsasuarrak, "bakoitzak idazteko modu bat dugulako. Baina emaitza ikusita ez ia alderik sumatzen." Tartean zuzentzaile bat izan zuten. Altsasuarrak aitortu digunez, "liburua argitaratzea sorpresa izan zen, ez bainuen uste hala izan zitekeenik. Antza, Jean

Françoisigure lana gustatu zitzaien. Poz-oz argitaratzeagatik". Lana egin eta bi urtera iritsi zen liburu-dendetara lana, azaro hasieran. Lehen parte dela dio izenburuak, "egia esan, bigarren parte gustatuko litzaidake. Ez dut salmenten berri. Ez dut galdetu. Ez zait interesatzen. Nire izena duen liburu bat egotearekin poz-oz nago. Egingo lanaren aitortza da".

Erakarpena

Unibertsitateko ikasketetan "asko irakurri behar izan genuen. Britainia Handiko eta AEBko egileak. Nik, akaso, aurretik ez nuen hainbeste irakurtzen. Literatura asko gustatzen hasi zitzaidan. Graduko ikasketetan gehien gustatu zitzaidana izan zen. Egia esan oso ira-

kasle onak izan nituen eta literaturarekiko interesa sakontzea lortu zuten". Claverrek esan du liburua argitaratu ondoren bere barruan "zerbaitesnatu" dela. Aurrerantzean ez du baztertu, arrazka du. Ez du ezer buruan, baina txikitatik fantasia-liburuak erakarri dute. "Hutsetik mundu bat sortzea gustatuko litzaidake. Sinesgaitza litzateke. Oso zaila da. Baina ikusiko dugu".

Idazketa horri heldu bitartean Claver hizkuntzetan trebatzen ari da: frantzes eta alemana ikasten ari da. Atzerrian ingeleza ikasi nahi duen haurren begirale izan da eta izanen da. Horrekin batera, Altsasuko futbol taldeko haurren mailako entrenatzailea bada ere.

» Etxarri Aranatz

Arartekoak beilatokiarendako beste kokapen bat iradoki du

Nafarroako Arartekoak, Francisco Javier Eneriz Olaetxeak, Etxarri Aranatzko Udalarari iradoki dio behar duen betekizun bakarra. Izan ere, legezkoatasunak betetzeak herritarren egonezina eragin



Etxarriarrek Beilatokiaren oraingo kokapenaren aurkako elkarretaraztean

Udal Plan Orokorra aldatzeko edo higiezinetak tanatorio edota beilatoki jardueren baldintzan arautzen dituen udal ordenantza bat onesteko. "Horren helburua da, bertan, oro har eta juridiko loteslea izanik, egoitza-erakinen etxabeetan tanatorioak eta beilatokiak instalatzea debekatzen duen edo tanatorio eta beilatokiak hileta-erabilera eskusiboko edo beste batzuegatik isolatuta dauden edo independenteak diren eraikinetan kokatzera behartzen duen hirigintza-araudia gehitzea".

Erantzun hori eman dio Enerizek beilatokiaren kokapen egokia eskatzeko dioten etxarriarren kezari. Herriko kale Nagusiko 2. zenbakiko etxabea kokapen egokia ez dela eta beste egokiago bat aldarrikatzen dute inguruko hainbat auzokidek. Beilatokiaren aldamenekoek udalarari Enerizen iradokizuna bere egiteko eskatu diote.

Enerizek Berako herritarrek antzeko kexa aurkeztu zutenean emandako erantzuna ekarri du gogora. Hartan aitortzen zuen Nafarroako indarreko araudiari jarraiki ez dela ilegala etxebizitzara eraikinen etxabeetan beilatokiak edota tanatorioak instalatzea. "Baina legezkoatasuna ez da administrazioak erabilera bat onartzean edo baimentzen itsu-itsuan bete

dezake, baita gizarte-bizikidetzaren narridura ere", Halakoak etxabeetan ez instalatzeko eta eraikin independenteetan kokatzeko eskaeraren arrazoiak, "besteak beste, kulturalak, sozialak, osasunekoak eta ingurumenekoak" direla dio arartekoak.

Udaletik


Beilatokiaren kokapenarekin ados ez dauden etxarriarrek, udal ordezkariak eta udal abokatua lantalde batean elkartzen dira. Eneka Maiz Ulaiar alkateak azaldu digunez, aurreko bilera batean beilatoki publiko bat eraikitzeke proposamena atera zen. Maizek jakinarazi digunez, udala beilatoki publiko baten bideragarritasun plana egiten ari da eta txostena ilbeltza akaberarako aurkeztuko duela aurreratu. Alkateak esan digunez, arartekoaren iradokizuna jaso aurretik abiatutako lana da hori.

Bestetik, Maizek aurreratu du 2018an hirigintza plan orokorra egiteko asmoa duela udalak. "Nolako herria nahi dugun zehaztuko da. Horretarako parte-hartze prozesua egin eta batzorde bat sortuko da". Hausnarketa orokor horren barruan, ikuspegi osoa izanik, herrian eta kanpoan zein zerbitzu nahi diren zehaztuko da.

» Arakil

Plazaola Fiturren

Arakilgo Udalak kide duen Plazaola turismo partzuergoak bide berdeko mapa irudizatu bat aurkeztuko du Fiturren gaur. Madrillgo turismo azokan, Nafarroako pabiloian, izanen da aurkezpena. Mapa ilustratu horretan bidearen irudi nagusia, zeharkatzen dituen eskualdeen argazkiak eta antzinako trenaren hainbat irudi eta argibide-testuak osatzen dute. Bide berdeko erabiltzaileendako tresna ikuserraza eskaini nahi du partzuergoak. Maparekin



batera udalerrri bakoitzaren informazioarekin eta sustapenerako eskuorriak argitaratuko ditu partzuergoak, Arakilgoa barne.

SAKANA

www.guaixe.eus web orriko bisita kopurua %61,17 hazi da urte batean

Guaixe fundazioaren mundurako ataria denak, www.guaixe.eus web guneak, joan den urtean 218.576 bisita izan zituen. Bisiten %55,19 sare sozialen bidez iritsi dira (%45,69 Facebook eta %9,46 Twitter). Bilaketan ondorioz guaixe.eus-en bukatu dutenak bisiten %24,44 dira eta sarrera zuzenak, berriz, %17,5



Kulturaren web orriaren bisitatuena

1. Altsasuarretik duen Goya saria
2. "Bi belaunaldiz estalita egon ondoren, euskalkia ahora"
3. Dantza egunean dantzan!
4. Guaixeren Udako Argazki Lehaketak sarituak ditu

5. Etxarri Aranatzko abesbatza txapeldunen txapeldun!
6. Alex Sardui-ri online elkarrizketa
7. Sakana Maitia, jendaurrera
8. 51 argazki eraferia irudikatzen
9. Ziordiko Festak-Etorkizuna Dantza Taldea
10. Unibertsoarekin dantzan

Nondik sartu dira

| | Kopurua | % |
|-----------------------|---------|-------|
| 1. Espainia | 206.549 | 94,64 |
| 2. Errusia | 3.337 | 1,53 |
| 3. AEB | 2.031 | 0,93 |
| 4. Frantzia | 1.235 | 0,75 |
| 5. Britainia Handia | 703 | 0,32 |
| 6. Irlanda | 400 | 0,18 |
| 7. Zehaztu ez dutenek | 359 | 0,16 |
| 8. Kyrgyzstan | 321 | 0,15 |
| 9. Alemania | 269 | 0,12 |
| 10. Argentina | 245 | 0,11 |

Sakanerrian web orriaren bisitatuena

1. #Altsasu manifestaziorako atxikimenduak eta eguneko irudiak
2. Altsasuko manifestazioa kalez kale
3. Falangeren mehatxu pintada

4. Altsasuko hiri inauteriak
5. #ALTSASU
6. Alex, maite zaitugu
7. Alex autoz harrapatu zuenari
8. Olazti hiri inauteria 2016
9. 15 urteko bi gazte atxilotuta
10. Presoen askatasuna aldarrikatu dute

Bisiten jatorria

| | 2015 | 2016 |
|-----------------|--------|---------|
| Sare sozialak | 57.926 | 120.643 |
| Facebook | 40.929 | 99.888 |
| Twitter | 16.815 | 20.689 |
| Bilaketak | 50.426 | 53.433 |
| Sarrera zuzenak | 22.814 | 38.338 |
| Referral | 3.595 | 5.738 |
| Besteak | 600 | 23 |
| Mail | 257 | 77 |

Kiroletan web orriaren bisitatuena

1. Urbasako Igoerak ikuskizuna ekarri zuen
2. Unai Mugika: "Altsasuko zirkuitua berreskuratu nahi dugu"
3. Jesus Senarrendako Kirol Merituaren Zilarrezko Domina
4. Joxe Martin Lizarraga: Erreferentea delako aukeratu zuten Beriain
5. Altsasu emakumezkoen erre-

- gionalaren estreinua
6. Unai Mugika: "Altsasuko zirkuitua berreskuratu nahi dugu"
7. Lakuntza-Aralar mendi lasterketak utzitako irudiak
8. Altsasuk atxilotutako Julen Goikoetxea euren atezainari eskaini zion garaipena
9. XXXIII. Barricarte lasterketa <http://guaixe.eus/altsasu/1481207161859>
10. Aritz Munarritz lehen sakan-darra Zegama-Aizkorrin

www.guaixe.eus-eko bisita kopurua

| | 2014 | 2015 | 2016 |
|----------------|---------------|----------------|----------------|
| Ilbeltza | 5.221 | 9.835 | 11.305 |
| Otsaila | 7.520 | 12.364 | 20.304 |
| Marsua | 8.394 | 12.632 | 14.990 |
| Apiribila | 6.244 | 9.647 | 17.688 |
| Maiatza | 9.476 | 15.001 | 20.192 |
| Ekaina | 10.147 | 14.167 | 20.436 |
| Garila | 8.126 | 10.640 | 14.648 |
| Agorri | 3.859 | 6.497 | 9.496 |
| Iraila | 7.349 | 10.973 | 20.184 |
| Lastaila | 8.847 | 11.839 | 19.125 |
| Azaroa | 8.662 | 12.232 | 33.336 |
| Abendua | 2.669 | 9.791 | 16.872 |
| GUZTIRA | 86.514 | 135.618 | 218.576 |

Zure bisitatuena?

www.guaixe.eus web orriaren zure egindako sarrera bat izan daiteke bisitatuena. Izan ere, Komunitatea izeneko atalaren bidez edozeinek www.guaixe.eus-era bere euskarazko testuak, argaz-

kiak eta bideoak igotzeko aukera du. Profila sortu eta has zaitzake. Blog-en bat edo Facebook edo Twitterreko kontua baduzu, haiek Guaixe.eus-eko Komunitatearekin RSS bidez lotu ditzakezu, horrela ikusgarritasuna irabaziko duzu.

Bisitarien gailu erabilienak

| | 2015 | 2016 | Aldea |
|--------------|---------|---------|---------|
| Mugikorra | 130.453 | 133.995 | +%2,75 |
| Tableta | 21.469 | 11.752 | -%45,26 |
| Ordenagailua | 147.967 | 72.505 | -%51 |

Urteko bideo laburpenak

Sakanan 2016an izan ziren gertakari nagusiak zein izan ziren gogoratunahi? Hori modu atsegin batean egiteko aukera eskaintzen du

www.guaixe.eus web guneak. Hiru bideo errepasso prestatu ditugu zuretzako, honako hiru loturetan ikusgai daudenak:

Sakanerria



Kirola



Kultura



40 tanatorios

IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

Juan Flores Galarza

"Gure ondotik joan zara baina betiko izango zaitugu bihotzean"

Zure familia

Lizarragabengoa, 2017ko urtarrilaren 15ean.

Juan Flores Galarza

Joan zatzaizkigu lurretik, baina ez gogotik, ezta bihotzetik ere. Familiak esker ona adierazi nahi dizue momentu triste hauetan, gure ondoan egon zareten guztiei.

Lizarragabengoa, 2017ko urtarrila.

Juan Flores Galarza

(Patxi Flores Lazkoz gure kolaboratzailearen aita)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.

Guaixe Fundazioko langileak

Juan Flores Galarza

(Gure lankide Patxiaren aita)

Dastatu eguzkiaren argia zauden lekutik.

Sakanako *aek*

Oroigarriak egiten ditugu



948 564 275
Foru plaza, 23-1 Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus

Fermin Andueza Beramendi

Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik. Gure bihotzetan zaude, beti maiteko zaitugu.

Zure familia

Fermin Andueza Beramendi

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Irañetako Txapelazpi Elkarte

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Lakuntzan gela bateko apartamentua alokatzen dut, herriko etxe batean dago. Tel 679 50 54 64 Itziar.

SALDU

Border Collie txakurkumeak saltzen dira, aita eta ama ardiekin lanean dabil-tza. Tel 646 843 579.

IKASTAROAK

Album ilustratu bat sortzeko hel-duendako lantegia. Otsailak 11, larunbata, 10:30 – 13:30 Arbizuko liburute-gian. Izen-ematea: Arbizuko liburute-gian otsailaren 3ra arte, 948 017 777 edo liburute-gi@arbizu.eus

Arakilen Batukada. Otsailaren 7an

hasi, astearte eta ostegunetan 20:00etatik 22:00etara, Oskar Estanga irakaslearekin. Otsailaren 6an hasiko da, eguna eta ordutegia taldeak zehaztuko ditu. Irakaslea Jon Barbarin izanen da. Bi ikastaroak lhabarren izanen dira. Hilaren 31ra arte eman daiteke izena Arakilgo udaletxean, 948 500 101 eta 634 584 226 telefonoetan. Arakilen erraldatuek 70 € ordaindu behar dituzte, ez daude-nek 90 €.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezese-rrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, esku-muturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oine-

takoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OHARRAK

Etxarri Aranazko irakurle taldea. Hurrengo hitzordua: ilbeltzaren 26an, ostegunetan, 19:00etan liburutegian. Jexuxmari Zalakain Garaikoetxearen "Kartzelako kronikak" liburuaz ariko dira.

Nafarroako haur kantari jaialdiak

2017. Izen-ematea zabalik dago 6-16 urte bitarteko. Nafarroako haur guztiek har dezakete parte; bakarlari, bikote zein taldeetan. Izena emateko amadominguez@tafallaikaastola.org. Jaialdiak martxoak 18, Zangozan; 19an, Lakuntzan; 25ean Lesakan eta apirilaren 1ean, Burlatan.

Euskaldun bat euro bat.

Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat erresuratatu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateuro-bat.com

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sartzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago [amigosjosefinaa-](mailto:amigosjosefinaa-rreguilagunak@gmail.com)

rreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaa-rreguilagunak.blogspot.com

JAIOTZAK

- Anas Ouassaid Hamdi, ilbeltzaren 7an Irurtzunen.
- Irati Zabala Jimenez, ilbeltzaren 7an Altsasun.
- Ariana Dos Anjos Teixeira, ilbeltzaren 9an Altsasun.
- Mara Karasatorre Astrain, ilbeltzaren 11n Etxarri Aranatzan.
- Leire Pozueta Palomo, ilbeltzaren 12an Altsasun.

HERIOTZAK

- Resurrección Ijrra Larraza, abenduaren 29an Arbizun.
- Camino Morales Calvo, ilbeltzaren 14an Altsasun.
- Juan Flores Galarza, ilbeltzaren 15ean Lizarragabengoa.
- Jacinta Munarriz Arbizu, ilbeltzaren 17an Iturmendin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Pilota

Nork jantziko ditu Sakanako txapelak?



Aurreko urteko Sakanako Pilota Txapelketako finalistetako batzuk.

XXIX. Sakanako Pilota Txapelketako finalak jokatu dira bihar Arbizon eta Lakuntzan

Sarritan esanahi dugu, baina berriro ere errepikatuko dugu eta berretsi egiten dugu: pilotak oraina eta

etorkizuna baditu Sakanan. Horren isla, bihar Arbizon eta San Saastin festetan murgildua dagoen Lakuntzan jokatu diren XXIX. Sakanako Pilota Txapelketako finalak.

104 pilotari

Sakanako 6 pilota klubeko 104 pilotarik hartu dute parte, guztira, XXIX. Sakanako Pilota Txapelketan. Abenduaren 3an hasi zen txapelketa, eta, ordutik, asteburu-

XXIX. Sakanako Pilota Txapelketako finalak

Lakuntzan, bihar, larunbatean, 17:00etan

Umeak 2: Ganboa-Eskudero (Lakuntza) / Etxeberria-Saralegi (Irurtzun)

Kadeteak: Araña-Araña (Gure Pilota) / Berekoetxea-Berastegi (Irurtzun)

Gazteak: Otxoa-Goikoetxea (Aldabide) / Olaetxea-Petriati (Aldabide)

Nagusiak: Ezkurdia-Bergera (Irurtzun) / Murgiondo-Arbizu (Irur-

tzun)

Arbizun, larunbatean, 16:00etan

Umeak 1: Igoa-Gonzalez (Pilota-jauku) / Amiano-Laso (Irurtzun)

Kimuak 2: Amado-Beruete (Aldabide) / Gorospe-Larrañaga (Sutegi)

Kimuak 1: Imaz-Garmendia (Aldabide) / Martiarena-Markina (Irurtzun)

Haurrak 2: Peral-Agirretxe (Pilotajauku) / San Roman-Ulaiar (Pilotajauku)

Haurrak 1: Imaz (Aldabide) / Gorrotxategi (Aldabide)

9 final jokoa

Bihar, larunbatean, jokatu dira finalak, 9 guztira, Arbizon eta Lakuntzan. San Saastin festetan murgilduta dagoen Lakuntzan izanen da sari ematea.

Binakakoa: Ezkurdiak eta Zabaletak launa puntu

8. jardunaldian, asteazkenean, Jakak eta Zabaletak 5 tantotan utzi zituzten Altuna eta Barriola, lehia ikusgarrian. Ezkurdiak eta Merinok igandean Urrutikoetxea eta Imaz izango dituzte aurkari

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako lehen buelta jokatu, sailkapenak oraindik estu jarraitzen du izaten. Zazpigarren jardunaldian, igandean Joseba Ezkurdia eta Jose Javier Zabaleta elkarren kontra aritu ziren eta Adarragan jokoan zegoen puntua Arbizura joan zen, Ezkurdiak eta Merino II.ak 22 eta 15 irabazi baitzieten Elezkano ordezkatu zuen Jakari eta Zabaletari.

Logroñokoa partida nahasia izan zen. Hasieran Jaka eta Zabaleta aurreratu egin ziren, 2 eta 4, baina berdintzea lortu zuten Ezkurdiak eta Merinok. Launa, bosna, bederatzina... berdindu zuten Ezkurdiak eta Merinok eta hortik aurrera alde atera zuten arbizuarra eta errioxarrak, Jakaren eta Zabaletaren akatsei esker, bereziki. Izan ere, Zabaletak behera egin

zuen eta ez zuen dominatzen jakin. Etxarrengoak 7 akats egin zituen; Ezkurdiaren 3 sake ezin izan zituen erantzun. Jakak, bere aldetik, 8 akats egin zituen. Hortaz, kontrako akatsak baliatuta eta serio jokatu zuten laugarren puntua Ezkurdiak eta Merinok.

Jaka eta Zabaletaren berpizkundea

Igandean ez ziren batere fin ibili Jaka eta Zabaleta, baina asteazkenean eraldatu ziren. Izan ere, 8. jardunaldia asteazkenean hasi zen, Jaka eta Zabaletaren eta Altuna eta Barriolaren arteko partidarekin. Kasu honetan bai, emandako aukera bikain aprobetxatzen jakin zuen Erik Jakak. Berarendako izan ziren partidako ia txalo gehienak. Izan ere, ikusgarri egon zen Lizartzako aurrelaria.

Lehen tantoa Altuna eta Barriolarendako izan zen, baina horren atzetik 12 tanto segidan egin zituzten Jakak eta Zabalak. Zabaleta nagusi izan zen atzean, eta Barriola



Jakak eta Zabaletak sekulako erakustaldia eskaini zuten herenegun. FOTO AIOL

la menperatzeaz gain, erraz saihestu zuen Altuna. Zabaletak horrela jokatzeko duenean, ia geldiezin da. Eta hori bikain aprobetxatu zuen Jakak, mota eta tankera guztietako tantoak egiteko, tartean sei sake errematez. Luze sakatu zuen Jakak, eta Barriolak ezin izan zion airea kendu. Eta paretan Altuna ezinean aritu zen partida osoan. Zalantzarik gabe, Altuna eta Barriolaren partida kaxkarraren izan zen.

Pentsatzekoa da hurrengo partidarako Danel Elezkano osatua egongo dela, baina Jakak oso baliagarria dela erakutsi du.

Ezkurdiak eta Zabaletak launa puntu

Irribarriak eta Rezustak 6 puntu dituzte, Ezkurdia-Merino II.ak, Elezkano II.a-Zabaletak eta Altuna III.a-Barriolak 4 puntu eta 3 puntu dituzten 3 bikote daude: Bengoetxea VI.a-Larunbe, Olaizola

Binakakoa. 8. jardunaldia

Elezkano II.a-Zabaleta 22 / Altuna III.a-Barriola 5 (Mungian jokatu zuten, asteazkenean)

Bengoetxea VI.a-Larunbe / Victor-Albisu (Galdakaon, gaur, ostiralean, 20:00etan. ETB1)

Irribarria-Rezusta / Olaizola II.a-Untoria (Bihar, larunbatean, 17:45ean, Labriten)

Urrutikoetxea-Imaz / Ezkurdia-Merino II.a (Igandean, Oiarzunen, 17:00etan. ETB1)

la II.a-Untoria eta Artola-Albisu. Urrutikoetxeak eta Beroizek 2 puntu dituzte.

Ezkurdia, igandean

Igandean, Oiarzunen, Urrutikoetxea eta Imazen kontra ariko dira Ezkurdia eta Merino II.a, txapelketan gora egiteko bosgarren puntuaren bila. Urrutikoetxeak eta Imazek irabazi egin zuten astelehenean, eta hirugarren puntua lortzeko gogoekin egongo dira. Hortaz, lehia estua espero da.

Zilarrezko Binakakoa. 2. jardunaldia

Dario-Jaunarena 21 / Laso-Iturrriaga 22 (Mungian jokatu zuten, asteazkenean)

Gorka-Martija / Peña II.a-Salaberri (Galdakaon, gaur, ostiralean, 20:00etan. ETB1)

Arteaga II.a-Erasun / Bakikoa-Ladis Galarza (Bihar, larunbatean, 17:45ean, Labriten)

Elordi-Erostarbe / Ugalde-Martinez (Igandean, Oiarzunen, 17:00etan. ETB1)

Joanes Bakaikoak galdu egin zuen debutean

Peñak eta Salaberrik 22 eta 11 irabazi zieten Joanes Bakaikoari eta Ladis Galarzari

Asteburuan hasi zen Zilarrezko Binakako Txapelketa. Txapelketa horren barruan, larunbatean, Joanes Bakaiko pilotari etxarriarrak Asegarcerekin debutatu zuen, Labrit pilotalekuan senitarteko, lagun eta zale asko alde zitue-

la. Ladis Galarza bikote zuela, Peña eta Salaverri izan zituzten aurkari. Tamalez etxarriarrak ezin izan zuen garaipenarekin debutatu, Peñak eta Salaberrik 22 eta 11 irabazi baitzieten, baina txapelketa hasi besterik ez da egin eta oraindik asko erakusteko du pilotari etxarriarrak.

Martija gaur sartuko da lehian

Etxeberriko Julen Martijak, bestalde, gaurekingo dio Zilarrezko Binakako Txapelketari. Errandonearekin bikotea osatuta, Elordi eta Erostarbe izango dituzte aurkari gaur, 16:30ean, Tolosan abiatuko den jaialdian.

Datorrena

Zilarrezko Binakako Txapelketa 2. jardunaldian, Errandonearen tokia hartuko duen Gorkak eta Martijak gaur jokatu dute, ostiralean, 20:00etan, Galdakaon, Peña II.aren eta Salaberriren kontra.



Joanes Bakaikoak bihar jokatu du.

Bakaikoak eta Ladis Galarzak, aldiz, bihar jokatu dute, Labriten, Arteaga II.aren eta Erasunen kontra, 17:45ean.

Atletismoa-txakurkrosa

Hiru sakandar lehiatu ziren Zumaiako Txakurkrosean

Igor Lanz bike joring+txakurkrosean aritu zen, Igor Artieda txakurkrosean eta Juan Bautista Urtasun patina+txakurkrosean

Txakurra lotuta korrika egiteari deitzen zaio canikrossa edo txakurkrosa. Geroz eta gehiago hedatzen ari den kirola da eta txakurrarekin batera korrika egiteko antolatzen diren lasterketak ere gutxinaka hedatzen doaz. Igandean, esaterako, VI. Zumaiko Txakurkrosa jokatu zen. Hiru sakandarrek parte hartu zuten, modalitate ezberdinetan.

Bikejoring+txakurkrosa

modalitatean lehiatu zen Satrustegiko Igor Lanz. Kasu honetan, Igor Lanz txirrindulan zihoan eta bere txakurra bizikletari lotuta, 4,3 km-ko proba zen eta Ekaitz Erauskinek irabazi zuen (12:41). Igor Lanz seigarrena sartu zen (19:34). Modalitate honekin batera, patinete baten gainean zihozaren parte hartzaileak zeuden. Horrela, eurek patinete gainean eta txakurrak patinetari lotuta joan behar ziren. Hauek ere 4,3 km-ko lasterketa zuten osatzeko. Pedro Etxeberria eta Duke gailendu ziren (12:16), Juan Bautista



Igor Artieda Luna txakurrarekin korrika. UTZITAKOIA

Urtasun urdiaindarraren eta Chaman bere txakurraren aurretik (15:48).

Azkenik, txakurkrosa modalitatean parte hartu zutenek korrikan osatu zuten proba, bere txa-

kurrari lotuta. 54 partaideren artean Mikel Etxeberria eta Duke bere txakurra izan ziren azkarrenak (29:37). Igor Artieda etxarriarra eta Luna bere txakurra 49. ak sailkatu ziren (44:37).

Atletismoa

Sergio Garcia de Eulate hirugarrena Aiegin

Igandean III. Aiegiko Herri Lasterketa jokatu zen. 59 korrikalarik ekin zioten proba absolutuari (6,7 km). Boskote batek, Sergio Garcia de Eulate tartean zela, lehia estua izan zuen buruan eta, azkenean, Marcos Yaniz gailendu zitzaion Xabi Arteagari. Biek denbora berean osatu zuten proba (24:00). 10 segundora sartu zen taldetxoa, Sergio Garcia de Eulate buru zela. Hortaz, hirugarrena sailkatu zen altsasuarra. Emakumezkoetan Uxue Muroles gailendu zen (28:45).

MARTINEZ 12.A ARAITZ-BETELUN ETA MINTEGI BIGARREN KADETEA

Igandean XII. Araitz Beteluko Krosa (7,7 km) osatu zuten 139 korrikalarik, 5 graduko tenperatura hotzarekin, euripean eta inguruko mendietan elurra zutelara. Raul Amatriain izan zen azkarrena (25:29). Alberto Martinez lakuntzarra 12.a sailkatu zen (27:18) eta Juan Luis Maiza etxarriarra 31.a (29:51). Nabarmenezkoa da kadeteen mailan Iker Mintegi altsasuarra bigarrena sailkatu zela (10:40), Abule Esteban irabazletik (10:13) 27 segundora.



Mintegi eta Martinez, hastear. UTZITAKOIA

Areto futbola

Errege Kopako finala gertuago du Magna Gurpea Xotak

Final erdietako joaneko partidaren Burelari 1 eta 5 irabazi zion talde berdeak

Errege Kopako final erdietako joaneko partida bikain joan zitzaion asteartean Magna Gurpea Xotari, Burelaren kontra jokatu zuten partidaren 1 eta 5 gailendu baitziren Imanol Arregiren mutilak.

Gol batekin aurreratu ziren gali-ziazarrak, baina horrek Magna Gurpea esnarazi zuen eta minutu eskas batera berdindu egin zuen Esevenrik. Handik gutxi, Saldisek gidatzen zuen kontraeraso bat zapuztu nahian Renatok gola sartu zuen bere atean eta 1 eta 2 aurreratu zen talde berdea. Eta bigarren zatian guztiz nagusitu egin zen Nafarroako taldea. Rafa Usin, Esevenri eta Aracari esker, azkenean 1 eta 5 irabazi zuen Magna Gurpeak.

Joaneko partida serioa egin eta gero, Errege Kopako finala gertu du Magna Gurpea Xotak. Final erdietako itzuliko partida Iruñean jokatu du Magna Gurpeak eta Burelak, otsailaren 7an, Anaitasunan. Hor erabakiko da.

Ligan, Jumillaren kontra larunbatean

Ligari dagokionez, aurreko ostiralean, Anaitasunan, Cartagenak 2 eta 3 irabazi zion Imanol Arregiren taldeari. Nahiz eta talde berdea 2 eta 0 aurreratu, ezin izan zion garaipenari eutsi eta akats ezberdinak direla medio Cartagenak lortu zuen garaipena. Punteria falta latza izan zuen, beste behin, Magna Gurpeak, baina nabarmendu behar da Cartagenako atezainak, Raulek, dena gelditu zuela.

“Partida arraroa izan da. 2 eta 0 aurreratu gara eta partida kontrolatuta genuen. Baina gure biakatsekin eta euren atezainak dena gel-



Roberto Martil irurtzundarra, Cartagenaren kontrako partidaren. XOTA

ditu duenez, nahikoa izan dute irabazteko. Ez baduzu golik sartzen halako gauzak gertatzen zaizkizu” aipatu zuen Imanol Arregik.

Lehen mailako sailkapen orokorrean Bartzelona da liderra (40 puntu). Magna Gurpea Xota 7.a da, 24 punturekin. Ligako hurrengo partidaren talde berdeak Jumilla izango du aurkari, bihar, larunbatean, 18:30ean, Jumillan.

Genario, taldekide berria

Magna Gurpea Xotak jokalaria berria du, Genario Benicio Peixoto. 31 urteko pibot brasildarra da, Iraneko Dabiri Tabriz taldetik datorrena eta 2011-2012 denboraldian Inter Movistar taldean aritutakoa. Fitxaketa berriaren papearak eta burokrazia kontu guztiak behar bezala egiten dituztenean debutatuko du Genariok.



Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

15. JARDUNALDIA

BERRIOZAR 2 - LAGUN ARTEA 1
ARROTXAPEA 3 - ETXARRI ARANATZ 3
 Preferenteko 15. jardunaldiak soilik puntu bat utzi du Sakanan. Berriozarren, Lagun Arteak behin eta berriz erasotu zuen Berriozar, baina bikain defendatu ziren Iruñerrikoak. Gutxinaka aurrerago jokatzeko hasi zen Berriozar eta lehen gola sartu zuten. Bigarren zatian Lagun Arteak bana berdindu zuen Asierri esker. Partida horrela bukatuko zela zirudienean, Laguneko atezainak penaltia egin zuen eta Berriozarrek garaipenaren gola sartu zuen. Iruñean, aldiz, hiruna berdindu zuten Arrotxapeak eta Etxarri Aranatzek. Bi taldeen arteko lehia oso borrokatua izan zen. Goikoetxeak Etxarri aurreratu zuen, baina Arrotxapeak berdindu egin zuen. Bigarren zatian Arrotxapeak bigarrena sartu zuen, baina Goikoetxeak berehala erantzun zuen, bina berdinduz. Garatek hirugarrena sartu zuen, baina, tamalez, Arrotxapeak berdindu zuen eta puntu bakarrekin itzuli ziren etxarriarrak.

Sailkapena >>

| | |
|--------------------|------|
| 1. Bidezarra | 34 p |
| 3. Lagun Artea | 26 p |
| 7. Etxarri Aranatz | 21 p |

Asteburuko jardunaldia

ARROTXAPEA - LAGUN ARTEA
 (Larunbatean, 15:30ean, El Iratín)
ARTAJONÉS - ETXARRI ARANATZ
 (Igandean, 17:00etan, Artaxoan)

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

13. JARDUNALDIA

ALTSASU - LAGUNAK (Atzeratuta)
 Larunbatean Dantzalekun Altsasuk eta Lagunak taldeek jokatu beharreko partida bertan behera geratu zen, elurrarengatik.

Sailkapena >>

| | |
|------------|------|
| 1. Ardoi | 30 p |
| 6. Altsasu | 14 p |

Asteburuko jardunaldia

GAZTE BERRIAK - ALTSASU
 (Larunbatean, 18:45ean, Antsoainen)

EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA

13. JARDUNALDIA

ALTSASU 2 - NAF. UNIBERTSITATEA 0

Sailkapena >>

| | |
|-------------|------|
| 1. Osasuna | 34 p |
| 10. Altsasu | 12 p |

Asteburuko jardunaldia

CASTEJÓN - ALTSASU
 (Ilbeltzaren 29an, Castejonen)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

14. JARDUNALDIA

Jardunaldia bertan behera geratu zen, eguraldiagatik

Futbola

Sakanako Futbol Topaketak: kimuen 8. jardunaldia etzi

Altsasun, Lakuntzan eta Etxarri Aranatzeko jokatu dira partidak

Sakanako Mankomunitateak Sakanako futbol klubuen laguntzarekin antolatutako Sakanako Futbol Topaketak aurrera doaz. Igandean kimuen mailako 8. futbol jardunaldia jokatu da Altsasun, Lakuntzan eta Etxarri Aranatzeko.

Sakanako Futbol Topaketak

Kimuen 8. jardunaldia (ilbeltzaren 22an, igandean)

Dantzalekun, 10:00etan:
 Kaixo - Tipi Tapa

Lakuntzan, 12:00etan:
 Sutegi - Lagun Artea

Etxarri Aranatzeko, 12:30ean:
 Urdiain - Etxarri Aranatz

ANTZERKITIK ELKARTASUNA: Tarima Beltza antzerki taldeak Amurrioko taldearekin trukea antolatu du. Haren emanaldia 28an izanen da Iortian. Sarrerako dirua Mila Kolore eta Altsasuarrak Aske ekimenendako da.

Zamari tiraka

Ikusleek, antolatzaileek eta musikari parte-hartzaileek pozik bukatu zuten Etxarri Aranazko kontzertu bikoitzarekin. Etxarri Aranazko Sarek, senide eta lagunez bigarren urtez jarraian antolatu zuten *Zama doinu arindu* elkartasun jaialdia. Bi emanaldietan kultur etxea beteta izan zen, 450 ikusle. La Chula Potra, Hutsun, Gozategi, El Deseo del Doctor, Hesianeko Fran eta Zuriñe, Anje Duhalde eta Zopilotesekin gozatu ederra hartu zuten.

Soka izan zen emanaldien protagonista. Sokak handi batek ingu-

ratzen zuen agertokia eta soka zegoen pantailan irudikatua. "Saiatzen gara korapiloak askatzen, sarritan asmatuz, gehiegitan okertuz, batzuetan asmatuz... eta tira, eta tira, eta tira... egin behar dela badakigu... barroteak hautsi arte." Horixe izan zen mezua. Musika, berriz, mezu horretara iristeko giltza... Zama arintzea zelako helburua. Jaialdiak dispersioak Etxarriko senide eta lagunei eragiten dien zama arintzeko asmoa du eta bide batez, dispersioaren eta espetxe politika anker horren kontrako aldarri egitea.



Etxarrin erraldoiak egiteko ideia bila



Proposamenak
kultura@etxarriaranatz.eus helbidera bidali edo 948 460 930 eta 606 239 008 telefonoetara hots eginez eman daitezke

Etxarriko Udaleko Kultura Zerbitzuak erraldoi berriak egiteko asmoa dauka, festetan eta ospakizunetan erabiltzeko. Azken urteetan festetan izan diren erraldoiak Uharteko Arakilen alokatuak dira Etxarri Aranazko Udalak halakorik ez daukalako, nahiz eta Etxarrin erraldoiak ateratzeko tradizioa aspaldikoa izan. Kultura Zerbitzuaren asmoa da erraldoien bidez Etxarriko pertsonaiak


irudikatzea, edo etxarriarrendako esanguratsua izan daitezkeen pertsonaiak baliatzea.

Horregatik, etxarriar guztiei ideiak emateko proposamena egin diete. Jasotako proposamenen arabera zer egin erabakiko luke lantalde batek.

Etxarri Aranatzek bi erraldoi ditu, errege-erreginak. Aspaldi haiek ez direla kalean ibiltzen urteen poderioz nahikoa izorratuta daudelako eta pisu handia dutelako. Bai haiek bai lau buruhandiak (bi pailazo, Popeye eta sorgina) berreskuratzeko asmoz 2011n tailerra antolatu zuen udalak.

Arakilgo argazki onenak aukeratuak

Arakilgo Udaleko Kultura Batzordeak jakinarazi du 3. argazki lehiaketako sarituak zein diren. Internet bidez eta udaletxe-ko erakusketan emandako botoen bidez aukeratu dira irabazleak. Festa eta ohiturei dagokion atalean lau argazki aurkeztu ziren eta herritarrek Juan Antonio Garai-koetxearen *Arakilgo eguna* argazkia aukeratu dute. Ondarea eta paisaiak atalean, berriz, 29 argazki aurkeztu ziren. Botoek saria Eduardo Uharteko Uharteri eman diote. Hark Etxeberriko *Monte Hermoso granjan belarra jaten* argazkia aurkeztu zuen lehiaketara.



bazterretik

Ilazki Martirena

Mikel Luzearekin lanean

Uda bukaeran, irailaren 19an, Mikel Luzeak bere 20. urteurrena ospatu zuen Iruñeko Baluarte Jauregian. Ekitaldi honetan Mikel Luzeak eta bere talde artistikoak -lone Erice, Alberto Manchado eta Alicia Najera- azkenengo ile bilduma eta "Mikel Luzea 20 años de ilusión" dokumentala aurkeztu zuten Mikel Luzea Espainiako ile apaintzaile ezagunenetakoa da nazioartean. 1996. urtean, Londonetik Iruñera itzuli zenean ireki zuen bere lehen ileapaindegia. Hala hasi zen Mikel luzearen ibilbidea ile apaintzaile gisa. Gaur egun moda-modako aldizkariak arreta berezia eskaintzen diote bere estiloari eta aldizkari nagusietan azalean noiz-nahi agertzen dira bere bildumak. Tebistan ere eskarmentu handia du, urte askotan azaldu da oso estilo aldatuarekin hainbat eta



hainbat saiotan. Atzetik talde profesional bikaina dauka Mikel Luzeak, horrekin batera kosmetika etxe garrantzitsuenentzat egin du

lan, eta gaur egun, Revlon Profesional multinazionalarentzat arte kolaboratzaile gisa dihardu, nazioartean.

Baluartean, lau orrazkeraz osatua, ERAK ile bilduma aurkeztu zuen. Elementu originalak eta inoiz erabili gabeak jarri zituen ilean, bereziki kateorratza edo "imperdible" delakoa izan zen protagonista. Kateorratzak aukera handia ematen du orrazkera bereziak sortzeko. Aurkezpeneko argazkietan eta desfilean erabili zituen jantziak Cristina Najerak eta biok diseinatu genituen lau estilismotan. Arroparen diseinuak lau baldintza bete behar zituen: txuria izan behar zuen, goiko alde abolumenarekin, lisatzeko erraza eta aise garraiatzeko modukoa. Azken baldintza oso garrantzitsua Luzearentzat, izan ere, ERAK bilduma geroztik aurkeztu du Londongo Royal Albert Hall-en, Panama hirian eta Madrilgo Salon Look Ifeman (Europako feria garrantzitsuenetakoa). Lau baldintzak kontuan genituela lanean hasi eta argazkian ikusten den estiloa erakutsi genuen.

Non erabili

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua koltxoietan.

ARKANGO TABERNA

ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

Produktua opari.

PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER

OLAZTI

Menu bereziarekin txupitua doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

www.guaixe.eus-en
zerrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

Kixotereren misterioak

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean

El Brujo antzezlea ezaguna da obra klasiko ugari antzeztu dituelako. Ibilbide horretan Kixoterekin topo egitea denbora kontuaz. *El Lazarillo de Tormes*ekin egin zuen moduan bakarriketa moduan moldatu du Migel de Cervantes Saavedraren obra, *Misterios del Quijote*. Kixotereren pertsonaiak gaur egunera ekartze-ko duen modu probokatzailer eta jostagarria da, zeinetan koblakaria lehen pertsonatik hirugarrenera pasatzen den, publikoarekiko lotura ekartzen du eta ikusentzuleek antzeztan osoa ematen dute barrez lehertzen edo irribarre egiten.

Lehen pertsonaia kontaktuko du El Brujok obra. On Kixote eta Santxo. Eromena eta arrazoi apala. Batzuetan, ametsetik, metaforatik heltzen dio, besteetan, obrako hainbat pasarte ematen ditu aktoreak. Egunerokoarekin lotura duten txiste politikoak, betiere, seriotasunaren barruan, eta arteari, antzerkiari, klasikoei, ebanjelioari edo grial sainduari buruzko hausnarketak. Cervantes existitza eta Kixote idatzi izana zalantza jartzen dira; izan ere, El Brujoren ustez "askatasunaren Kristoaren sektaren" lana da. Gobernuaren eta herri administrazioen kultura-politika ere eztabaidan jartzen du.

Bakarriketan antzeztuak argiaren eta Enrique Morenteren doi-



nu flamenkoen osatutako soinu banda besterik ez ditulagun. El Brujok bere hitzak intimoaren, epikoaren, emozioen eta irri garrien doi-

nuekin nabarmentzen ditu. Kontakizun guztia gorputz adierazpen aberatsarekin lagunduta, zeinetan beso-jokoa bikaina den.

Ikuskizun garrantza eta barregarria

Larunbatean, 20:00etan, Olatzagutiko kultur etxean

Rafael Maza aktoreak Fabioloren papera jokatu du. Fabiolo Madrilgo aberaskume bat da. Pertsonaia lotsagabea, ahogaiztoa eta makarra da, oso aberatsak bakarrik izaten diren eran. Umore handiko aberaskume berezi horrek bizitza nola ikusten duen kontaktuko

digu. Ahotsa eta gorputza erabiliz pertsonaia dibertigarrien imitazio paregabeak eginen ditu. Mazas aktore polifazetikoak Fabioloren larruan ikuslearen barre-algara eraginen du edozein keinu edo detaile txikirekin. Bere istorio zentzugabe eta surrealista kontatzen dituen bitartean, gaur eguneko gai eta arazo ez ere aritzen da: langabezia, kaleratzeak...



Fabiolorekin, Pedralbes kaleko jauregitxo berezi bat bisitatze-ko aukera izanen da, eta gogoe- ta eginen du izugarritzko bizi- moduari buruz. Baina, argi!

Fabiolo lotsagabea da eta bururaten zaion guztia aurpegira esatera ohituta dago, ikuspuntu fashion batetik, estiloz eta dotoreziaz.

Lortia abonamenduak, hilabete bukaera arte eskura

Altsasuko Udako Kultura Zerbitzuak neguko programazioa iragartzearekin batera, bere eskaintza merkeago gozatzeko aukera eskaini du: abonamenduak. Bi abonamendu dira, helduendako eta familiarterko abonamendua. Lortia abonamendurekin helduendako abonamendupare bat eskaintzen ditu Kultura Zerbitzuak. Alde batetik, lau antzeztan (*Miste-*

rios del Quijote, Francoren bilobari gutuna, Happy End eta Fuera de juego) eta zinema sarrera bat 40 euroren truke eskuratu daitezke. 8 euroko aurrezpena. Beste helduen abonamenduak lau antzeztanetik hiru aukeran eta zinema sarrera bat 30 eurotan lor daitezke. Aurreztea 2 edo 8 eurokoa izan daiteke, aukeraketaren arabera.

Bestetik, familiarterko abona-



menduan ere bi eskaintza daude. *Peter Punk* antzeztaneko sarrera eta bi zinema emanaldirako sarrerak 8 eurotan eskuratu daitezke. 3 euroko aurrezpena. Bigarren aukera

antzeztana eta hiru zinema emanaldiko sarrerek osatzen dute. 10 eurotan eskuratu daitezke abonamendu hori, 4,5 euro aurrezteko aukera izanik.

Arakilgo Udalak bi ikastaro prestatu ditu

Batukada eta antzerkia. Bi horiek ikasteko aukera eskaintzen du Arakilgo Udalak. Batukada irakaslea Oskar Estanga izanen da. Berarekin perkusioa jotzen otsailaren 6an hasiko dira, astearte eta ostegunetan, 20:00etatik 22:00etara. Bestetik, antzerki ikastaroko irakaslea Jon Barbarin izanen da. Haren klaseak otsailaren 6an hasiko dira. Eguna eta ordu-



tegia taldeak zehaztuko du.

Bi ikastaroak Ihabarren izanen dira. Hilaren 31ra arte eman daitezke izena Arakilgo udaletxean, 948 500 101 edo 634 584 226 telefonotan. Arakilen erroldatuek 70 euro ordaindu behar dituzte, ez daudenek 90.

Hiri-dantza ikasteko aukera

Altsasuko Intxostiapunta gazte guneak hiri-dantza ikastaroa hartuko du hileko azken asteburuan. Leire Cotor koreografoa eta Ethan Lopez B-Boy ezagunak etorriko dira hilaren 28an eta 29an. Saioak 17:00etatik 20:00etara izanen dira. Haiekin hiri-dantzan trebatu nahi dutenek 948 564 785 telefonon edo intxostiapunta@altsasu.net e-postan eman dezakete izena. 7,5 euro ordaindu beharko dira.

San Saastin onak pasa!

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA
Ermiñeta kalea 4 - 948 567 331
LAKUNTZA

» Lakuntza

Piperropilekin eta danbor doinuekin hasi ziren San Saastinak

Lakuntzako Pertza elkarateak
Lakuntzako Txindoki gozotegiko
Sabino Navarro gozogileari jarri zion
aurtengo Ohorezko txanoa

Atzo hasi ziren aurtengo Sakana-ko lehendabiziko festak: Lakuntzako San Saastinak. Hauek dira lakuntzarren benetakofestak, uda-

koak aintzinako feriak baitziren. Atzo arratsaldean hasi ziren, txupinazoarekin. Segidan piperropil lehiaketaren txanda izan zen eta bartekin zitzaion Lakuntzako Pertza elkarateak antolatzen duen danborrada eskaintzeari. Aurten 27. edizioa izan da. Joxe Flores eta Ricardo Aretaren aginduetara sukaldariz jantzitako lakuntzarrek euren danbor gorriak gogoz astinduzituzten gauerditik aurrera, *San Saastin martxa, dianak, Tatiago, Biribilketa, Iriyarena eta Lantzeko zortzikoa* eskainiz.

Danborrada bat egitearen ideia 1990. urtean sortu zen lagun koardila baten inguruan. Urte hartako San Saastin jaietan irten ziren lehen aldiz Lakuntzako kaleetan barna. 1997an ohorezko txanoak banatzen hasi ziren Lakuntzako Pertza elkaratekoak, herriko hainbat alorretan, kirolean, kulturean edo lanbide desberdinetan, herri-gatik lan egin duten pertsonen omenaldia egin nahian. Aurten Lakuntzako Txindoki gozotegiko



San Saastin ermitara joanen dira gaur lakuntzarrak.

Sabino Navarro gozogileak jaso zuen, "urte luzez San Saastin eguneko erromerian San Saastin basilizan piperropilak banatzeagatik", Ricardo Aretak aipatu zigunez. Pozik eta hunkituta jaso zuen omenaldia. Navarro lehen mailako gozogile ofiziala da eta duela 32 urte zabaldu zuen Lakuntzako Txindoki gozotegia Mari Cielo Lopez de

Zubiria bere emaztearekin batera eta bere tartak, turroiak, Errege errosoak eta gozoek arrakasta handia dute.

Danborradako argazkiak

Atzoko irudiak www.guaixe.eus web orrian ikusgai daude.

Egitaraua

>> Ilbeltzak 20, ostirala

6:00etan Aurora.
11:00etan Erromeria San Saastin basilizara.
12:00etan Meza San Saastinen.
13:00etan Auzatea Lakuntzako Pertza elkarateak eskainia.
18:30ean Danborrada txikia plazan.
18:30ean Elai-Alai dantza taldearen emanaldia plazan.
19:00etan Alkate dantza.
19:30ean Buruhandiak
20:00etan Dantzaldia DJ Bull-ekin.
20:00etan Auzatea.
21:00etan Zezensuzkoa.
00:00etan Dantzaldia DJ Bull-ekin.

>> Ilbeltzak 21, larunbata

12:00etan Erraldoiak eta buruhandiak.

13:00etan Auzatea.
13:00etan Karrika dantza plazan.
17:00etan Sakanako Pilota Txapelketako finalak.
18:30ean Umeendako herri kirolak plazan.
19:30ean Buruhandiak.
20:00etan Auzatea.
20:00etan Dantzaldia Oharkaberekin.
21:00etan Zezensuzkoa.
00:00etan Dantzaldia Oharkaberekin.

>> Ilbeltzak 22, igandea

11:00etan Puzgarriak pilotalekuan.
11:00etan Alebinen futbol txapelketa parkean. Lagun Artea-Sutegi.
13:00etan Auzatea.
13:30ean Aizkolariak plazan.
16:30ean Puzgarriak pilotalekuan.
20:00etan Auzatea.
20:00etan Dantzaldia Iñakirekin.
21:00etan Zezensuzkoa.

» Olatzagutia

San Sebastian ermitara bisita

Egurdian otordua eta arratsaldean txokolate jatea izango dira Urbasako portuko bidean dagoen basilizan

Olaztin, Urbasako portuko bide bazterrean kokatuta dago San Sebastian ermita. Gaur ermitako titula-



rraren eguna denez, San Sebastian eguna, ohiturari jarraiki izen bereko ermitara joko dute olaztiarrek. Egurdiko mezaren ondoren otordua eskainiko dute San Sebastian auzokoek 13:00etan eta, arratsaldean, 17:00etako arrosarioaren ondoren, 17:30ean, txokolatea. Festak pilotalekuan jarraituko du, trikitixa doinuekin girotuta ardo eta gazta banaketa izango baita 19:30ean.

» Dorrao / Bakaiku / Iturmendi / Urdiain

San Anton kofradiak festara bilduak

Dorraoko, Bakaikuko eta Urdiaingo kofradiak bihar ospatuko dute euren eguna. Iturmendiako kofradia, aldiz, domekan bilduko da

Mandazainek XVII. eta XVIII. mendeetatik XIX.era arte gurean oso garrantzitsuak izan ziren; euren ekonomia jardunaren lekuko biziak dira, oraindik ere, San Anton kofradiak. San Anton saindua animalien eta abeltzainekin eta abereekin zerikusia duten lanbideen babeslea da eta ilbeltzaren 17a da haren eguna. Bere izena duten kofradiak euren eguna ospatuko dute asteburuan. Hildako kofradeak gogoratzeaz aparte, karguak berrituko dituzte ibarreko lau kofradiak. Ospakizuna bazkari ederrekin despedituko da.

Dorrao

San antondar dorrobarrak bihar elkartuko badira ere, gaur prestatuko dute biharko gosaria. Bihar, 9:00etan, elizan dute hitzordua. Hildako kofradeen omenezko elizkizuna eta gero priorearen etxe-

ra joanen dira. Han erresponsua *-Aita Gurea eta Agur Maria-* errezatu ondoren elkarreko bidea hartuko dute. Itur-aldea elkarreko mahaien bueltan gosalduko dute kofradeek. Guztiak ere 15:00etako bazkarian elkartuko dira atzera ere.

Bakaiku

Hitzordua 13:00etan dute jarria Bakaikuko San Anton kofradiako kideek, elizan, mezara joateko. Handik atera eta elkarrean, 14:30ean, anaitasun bazkaria izanen dute. Giroa alaitzeko akordeoilararen laguntza izanen dute. Zehazki, kofradiaren 301. urteurrena ospatuko dute, aurten, san antondar bakaikuarrek. 1.715 urtetik kofradiaren martxa jasotzen duen akta liburuan kargu berriak eta urtean barna izandako mugimenduak jasoko dituzte.

Iturmendi

San Antonen eta San Migelen irudia duen bandera aldean dutela,



Iturmendiako San Anton kofradiako kideak kuota ordaintzen.

san antondar iturmendiarrak domekan ospatuko dute euren eguna. Kofradeak 11:00etako mezan elkartuko dira. Ondoren, apaiz etxean batzarra egingen dute, kontuak zertan diren jakiteko eta egoki jotzen bada arduradun berriak aukeratzeko. Hildako kofradeen aldeko erresponsua errezatu ondoren, Aritzaga elkarrean bazkaltzera elkartuko dira.

Urdiain

Bihar, 12:00etan, elizkizunean elkartuko dira san antondar urdiaindarrak. Hildako kofrade-

ak izanen dituzte gogoan mezan. Garai batean meza ondoren animaliak bedeinkatzen zituzten, horien faltan herriko soroen eta abereen bedeinkapena egingen du apaizak eta San Antonen omenezko kanta abestuko dute.

Eliz aldamenean dagoen Tintinurri elkarrean gosalduta ondoren, herriaren etxean batzarra egingen du kofradiak. Kontuak egunean jarri eta karguak berrituko dituzte atzera ere. Aitziber elkarrean bazkaita joanen dira eta hura despeditukoan, maiordomoen etxetan jan-edanak izanen dituzte.

Ongi pasa sansaastinak!

LAKUNTZAKO TABERNAK

- Apur Ogi berri - Kale Txiki - Lagun Artea -

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA

Ongi pasa festetan!
Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea:
tripota
tripotxa
mihia
kalluak
saltxitxak
frituak

tel. 948 576 067

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

G

asteko >> : eguraldia

| | ostirala | larunbata | igandea | astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna |
|----------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|----------------|-------------|
| | | | | | | | |
| euria: % 4 | euria: % 5 | euria: % 15 | euria: % 20 | euria: % 15 | euria: % 15 | euria: % 15 | euria: % 35 |
| Min: -2 Max: 7 | Min: 0 Max: 7 | Min: 0 Max: 7 | Min: 2 Max: 6 | Min: 2 Max: 8 | Min: 3 Max: 9 | Min: 5 Max: 11 | |

: temperatura >>

| | Max. °C | Min. °C | euria l/m ² |
|------------|---------|---------|------------------------|
| Irurtzun | 14.5 | -4 | 209.5 |
| Etxarri A. | 14.4 | -5 | 148 |
| Altsasu | 14.5 | -4.5 | 176.1 |
| Aralar | 7 | -11.5 | 95.1 |
| Urbasa | | | |

: ilargiaren aldia >>

| ilberri | ilgora | ilbete | ilbehera |
|---------|--------|--------|----------|
| | | | |
| 28 | 4 | 12 | 18 |

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Etxe pasiboetarako egokia

Beirak lehorrean jarrita

Isolamendu nukleo indartsua

Aparteko azala koloreztatua

Bazkide zozketa

URTARRILEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

Ekain berri

CAMPING ARTAZA

>> 11 galdera

M^a Dolores Ollakarizketa Urrutia

Errozko errotaria



- 1. Errotan bizi zineten?**
Bizi guztia han bizi izan naiz, handik inora mugitu gabe, Atondora ezkondu arte.
- 2. Zer ehotzen zenuten?**
Garia, garagarra, oloa, artoa... ekartzten zutena. Dena. Ez genuen argindarra sortzeko erabiltzen.
- 3. Errota erabiltzeari noiz utzi zitzaion?**
Nekazari guztiek traktore-errotatxoa izan zutenean. Praktikoagoa zitzaion ez mugitzea eta halako errotatxoa erostea, orduan ez zuten asko balio. Errotara etortzeari askok utzi zioten. 1985-1990 urtera izan zen. Ordura arte ni ehotzen egon nintzen.
- 4. Etxe azpian urarendako kanala, ezta?**
Bai. Beti urarekin egon behar du. Hark mugitzen du turbina. Lo egiterakoan ura ez da entzuten.
- 5. Eta uholdeak aurreikusten ziren egunetan zein neurri hartzen zenituzten?**
Normalean, ibaiertzeangeundenei, ubeldea zetorrela, aurretik Guardia Civilak abisatzen zigun. Beheko solairua tresnez hustu; bestela, urasartzean haiek mugitu eta paretak jotzen zituztelako. Goiko solairura, etxebizitzara, edo beste etxe batera eramaten genituen. Azindapareko etxean genuen. Ura haraino iristea ez dut ezagutu.
Ezagutu dudaz azken uholdean urari bizi ginen solairura iristeko eskailera maila bat besterik ez zitzaion faltatu, esku bat. 3 metro pasako ur altuera errota barruan. Eskailera eta errotaren altuerak ziren gure adierazleak.

- Errotan uholde guztien arrastoak daude.
- 6. Eta halakoetan zer egiten zenuten?**
Nik ez nuen beldurrik. Etxean gelditzen nintzen. Amak batzuetan pareko etxera joateko esaten zuen, "egoera lazten arida", esaten zuen. Berehala baretuko zela esaten nion. Kasualitatez hala izaten zen. Urari ez nion beldurrik. Jaki eta sutarako egur ugari izaten genuen. Argi mozketarik ere ez zen izaten.
- 7. Uholde handirik?**
Azkeneko handia, ni ez nintzen bizi, 1953an izan zen. Uholdeak Errozko eta Anozko zubiak eraman zituen. Gure etxearen erdia ere. Gainontzeko etxeek ez zuten kalterik izan. Gure etxea aurrenekoa da, uharkaren izkina du bertan. Errepide ginetik ur maila metro eta erdigorago zihoan. Ama, ezkongabea orduan, 29 urte zituen eta osabekin bizi zen. Errotatik pareko etxera pasatzeko, ate batetik bestera soka bat lotu, eta osabak pasa zituen. Ur maila jaitsi arte han egon ziren. Ibaia gauez hazi zen. Goizean hazita zegoen eta arratsalderako emaria jaitsi zen. Bat-batean joaten da. Baina arrastoa utzi zuen.
- 8. Nola berreraiki zuten errota?**
Ahal zuten moduan. Orduan ez zegoen inolako diru-laguntzarik. Ezer ez. Izan diren uholde guztietan uharkan kalteak izan dira. Enbor handiak gelditzen dira. Hara joan eta kendu egin behar dituzu. Uharka zatiak hausten dituzte eta berregin behar da. Guk egiten genuen, uharka gurea da. Beraz, uholdeak pasa ondoren

- errota eta uharka nola dauden begiratzen dut.
- 1994an beste uholde handi bat izan zen. Orduan ere ia igerian pasa behar izan genuen. Autoaren atearen erdi-aldera arte iristen zen ur maila. Errotz isolatuta gelditu zen.
- 9. Auzokideak elkar gaztigatzen zenuten, ezta?**
Bai. Errotan urak zein maila zuten galdetzen zuten eta horren arabera zekiten gora igo edo etxetik atara behar zuten. Tarteka uraren mailak zenbat igo zen gaztigatzen genien. Kasualitatez orain arte ez da larrialdirik izan.
- 10. Uholdeen maiztasuna, lehen orain baino gehiago?**
Lehen maizago zirela esanen nuke. Euri eta elur gehiago egiten zuten lehen. Astelehenean haurren bila joan nintzen eta Errotz eta Izurdiaga artean errepidea moztuta zegoela esan zidaten. Atondon erreferentzia batzuk ditut eta ibaiak zein altuera duen dakit. Nik beti bezala ikusten dut. Baina honetan eragina izan du Izurdiagan egin duten errotondak, ibaiari asko jan diote, inbutua egiten du. Errotzen beste arazo bat dago: zubira sartu aurretik, ezkerrean, ibai mailatik oso gora igotako lur-sail txiki bat dago. Karel handia egiten zuten. Horrek guztiak geldiarazten du ura. Hori da Errozko ubeldea. Naturarekin eta ibaiarekin elkar-bizi behar dugu. Ibaiak bere ibilgua du. Mantendu eta zaindu egin behar da.
- 11. Errotarekin zerbait egiteko asmorik?**
Denborarekin, zeinek daki.

Zure herriko festak iragarri

Nahi duzun euskarrian

gk

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus